

UPV/EHUko ESTATUTUAK

ESTATUTOS DE LA UPV/EHU

IDAZKARITZA OROKORRA
SECRETARÍA GENERAL



NAZIOARTEKO
BIKAINASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

UPV/EHUko ESTATUTUAK

ESTATUTOS DE LA UPV/EHU

emán ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

AURKIBIDEA

I. TITULUA. UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN IZAERA ETA HELBURUAK	9
II. TITULUA. UNIBERTSITATEKO KIDEAK	16
I. kapitulua. Xedapen orokorrak	16
II. kapitulua. Ikasleak	18
III. kapitulua. Irakasleak eta ikertzaileak	23
IV. kapitulua. Administrazio eta zerbitzuetako langileak	40
V. kapitulua. Premia bereziak dauzkaten pertsonak	48
VI. kapitulua. Diziplina araubidea	49
VII. kapitulua. Aldezlea (UPV/EHUko arartekoa)	50
III. TITULUA. UNIBERTSITATEAREN JARDUNA	52
I. kapitulua. Xedapen orokorra	52
II. kapitulua. Unibertsitateko irakaskuntza	53
III. kapitulua. Ikerketa	59
IV. kapitulua. Irakaskuntzari eta ikerketari laguntzeko zerbitzuak	64
V. kapitulua. Kalitatearen bermea eta unibertsitateko jardueraren ebaluazioa	65
VI. kapitulua. Nazioarteko hedakuntza	67
VII. kapitulua. Unibertsitatearen gizarte hedakuntza eta erantzukizuna	68
IV. TITULUA. HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERA	70
I. kapitulua. Xedapen orokorrak	70
II. kapitulua. Euskara UPV/EHUen	71
V. TITULUA. UPV/EHUren EGITURA	73
I. kapitulua. Xedapen orokorrak	73
II. kapitulua. Unibertsitateko campusak	74
III. kapitulua. Ikastegiak	76
IV. kapitulua. Sailak	80
V. kapitulua. Unibertsitateko ikerketa institutuak	83
VI. kapitulua. Doktorego eskolak	86
VII. kapitulua. UPV/EHUko edo UPV/EHUri atxikitako gainerako gune, egitura edo entitateak	87
VI. TITULUA. ADMINISTRAZIOKO ZERBITZU OROKORRAK ETA UNIBERTSITATEKO KIDEEI LAGUNTZA EMATEKOAK	89
VII. TITULUA. UPV/EHUren GOBERNUA ETA ORDEZKARITZA	91
I. kapitulua. Xedapen orokorrak	91
II. kapitulua. Kide anitzeko gobernu eta ordezkaritza organoetako kideak hautatzea	92
III. kapitulua. UPV/EHUko organo orokorrak	94
IV. kapitulua. Campusetako organoak	108
V. kapitulua. Ikastegietako gobernu, ordezkaritza, zuzendaritza eta kudeaketa organoak	112

ÍNDICE

TÍTULO I. DE LA NATURALEZA Y FINES DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA	9
TÍTULO II. DE LA COMUNIDAD UNIVERSITARIA	16
Capítulo I. Disposiciones comunes	16
Capítulo II. Del alumnado	18
Capítulo III. Del personal docente e investigador	23
Capítulo IV. Del personal de administración y servicios	40
Capítulo V. De las personas con necesidades especiales	48
Capítulo VI. Del régimen disciplinario	49
Capítulo VII. Del o de la Aldezle (Defensor o Defensora Universitaria de la UPV/EHU) ..	50
TÍTULO III. DE LA ACTIVIDAD UNIVERSITARIA	52
Capítulo I. Disposición general	52
Capítulo II. De las enseñanzas universitarias	53
Capítulo III. De la investigación	59
Capítulo IV. De los servicios de soporte a la docencia y a la investigación	64
Capítulo V. De la garantía de la calidad y de la evaluación de la actividad universitaria . . .	65
Capítulo VI. De la proyección internacional	67
Capítulo VII. De la proyección y responsabilidad social universitaria	68
TÍTULO IV. DEL USO DE LAS LENGUAS OFICIALES	70
Capítulo I. Disposiciones generales	70
Capítulo II. Del euskera en la UPV/EHU	71
TÍTULO V. DE LA ESTRUCTURA DE LA UPV/EHU	73
Capítulo I. Disposiciones generales	73
Capítulo II. De los Campus Universitarios	74
Capítulo III. De los Centros Docentes	76
Capítulo IV. De los Departamentos	80
Capítulo V. De los Institutos Universitarios de Investigación	83
Capítulo VI. De las Escuelas de Doctorado	86
Capítulo VII. De los demás centros, estructuras o entidades propias o adscritas a la UPV/ EHU	87
TÍTULO VI. DE LOS SERVICIOS ADMINISTRATIVOS GENERALES Y DE ASISTENCIA A LA COMUNIDAD UNIVERSITARIA	89
TÍTULO VII. DEL GOBIERNO Y REPRESENTACIÓN DE LA UPV/EHU	91
Capítulo I. Disposiciones comunes	91
Capítulo II. De la elección de representantes para los órganos colegiados de gobierno y de representación	92
Capítulo III. De los órganos generales de la UPV/EHU	94
Capítulo IV. De los órganos de los Campus Universitarios	108
Capítulo V. De los órganos de gobierno, representación, dirección y gestión de los Centros docentes	112

VI. kapitulua. Sailetako gobernu, ordezkaritza, zuzendaritza eta kudeaketa organoak.	117
VII. kapitulua. Unibertsitateko ikerketa institutueta, doktorego eskoletako eta bestelako gune, egitura edo entitateetako gobernu, ordezkaritza, zuzendaritza eta kudeaketa organoak.	121
VIII. TITULUA. UPV/EHUren EKONOMIA ETA FINANTZA ARAUBIDEA.	122
I. kapitulua. Xedapen orokorra	122
II. kapitulua. UPV/EHUren ondarea	122
III. kapitulua. Ekonomia eta finantza baliabideak	123
IV. kapitulua. Ekonomia eta finantzen kudeaketa	124
V. kapitulua. Urte anitzerako programazioa.	126
IX. TITULUA. ESTATUTUAK ALDATZEA.	129
XEDAPEN GEHIGARRIAK	131
XEDAPEN IRAGANKORRAK	132
XEDAPEN INDARGABETZAILEA	133
AZKEN XEDAPENA	134
UPV/EHUko ESTATUTUEN AURKIBIDE ANALITIKOA.	135

Capítulo VI. De los órganos de gobierno, representación, dirección y gestión de los Departamentos	117
Capítulo VII. De los órganos de gobierno, representación, dirección y gestión de los Institutos Universitarios de Investigación, Escuelas de Doctorado y demás centros, estructuras o entidades	121
TÍTULO VIII. DEL RÉGIMEN ECONÓMICO Y FINANCIERO DE LA UPV/EHU .	122
Capítulo I. Disposición general	122
Capítulo II. Del patrimonio de la UPV/EHU	122
Capítulo III. De los recursos económico-financieros	123
Capítulo IV. De la gestión económico-financiera	124
Capítulo V. De la programación plurianual	126
TÍTULO IX. DE LA REFORMA DE LOS ESTATUTOS	129
DISPOSICIONES ADICIONALES	131
DISPOSICIONES TRANSITORIAS	132
DISPOSICIÓN DEROGATORIA	133
DISPOSICIÓN FINAL	134
ÍNDICE ANALÍTICO DE LOS ESTATUTOS DE LA UPV/EHU	135

I. TITULUA.
**UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/
EUSKAL HERRIKO
UNIBERTSITATEAREN IZAERA ETA
HELBURUAK**

1. artikulua

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) zuzenbide publikoko erakundea da, gizartearen zerbitzura dagoena. Erakunde autonomiaduna da, nortasun eta ahalmen juridikoak dauzkana, bai eta ondare propioa ere. Goi mailako irakaskuntza eskaintzen du, bere eskumenen eremuan, honako hauen bitartez: irakaskuntza, ikerketa, ikasketa, kultura eta unibertsitate hedakuntza, eta bere jardueren oinarri diren kudeaketa prozesuak eta zerbitzuak. UPV/EHUK bere gain hartzen du zerbitzu horien kalitatea eta bikaintasuna bermatzeko konpromisoa. Bestalde, euskal gizartearen premiei erantzungo die, bai eta historiak eta aldaketa sozioekonomiko, politiko eta kulturelek ekarritakoei ere. Kultura eta zientzia unibertsalaren jakintza ere zabalduko du gizartean, eta euskara eta euskal kultura bultzatuko ditu bereziki. Era berean, ekonomia, gizarte eta ingurugiroaren jasangarritasunerako irizpideei jarraiki eramango ditu aurrera eraguneroko zereginak.

2. artikulua

1. UPV/EHU hainbat campusetan dago banatuta. UPV/EHU modu deszentralizatuan dago antolatuta eta eginkizunak ere banatuta dauzka. Bestalde, aurrera eramango dituen zereginetara egokituko du bere egitura, eta etengabe eguneratuko da.

2. UPV/EHUK, zereginak aurrera eramatean, honako printzipio hauek hartuko ditu aintzat: legezketasuna, eraginkortasuna, eragimena, gardentasuna, kalitatea eta ahalik eta zerbitzurik onena ematea gizarteari eta unibertsitateko kideei.

3. artikulua

1. Unibertsitatearen izen ofiziala «Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea» da edo, laburtuta, UPV/EHU.

TÍTULO I.
**DE LA NATURALEZA Y FINES DE LA
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/
EUSKAL HERRIKO
UNIBERTSITATEA**

Artículo 1

La Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) es una Institución de Derecho Público, al servicio de la sociedad, que goza de autonomía y está dotada de personalidad y capacidad jurídica y de patrimonio propio, para prestar, en el ámbito de su competencia, con el compromiso ineludible de calidad y excelencia, el servicio de la enseñanza superior mediante la docencia, la investigación, el estudio, la proyección cultural y universitaria, los procesos de gestión y los servicios que sustentan sus actividades. Su actividad se dirigirá a satisfacer las necesidades de la sociedad vasca así como las derivadas de su historia y de sus transformaciones socioeconómicas, políticas y culturales, difundiendo en ella los conocimientos de la cultura y la ciencia universal, prestando atención principal a la cultura y a la lengua vasca y ejerciendo su actividad cotidiana de manera sostenible económica, social y ambientalmente.

Artículo 2

1. La UPV/EHU se constituye como una Universidad multicampus. Se organiza de forma descentralizada y funcionalmente desconcentrada y adecuará y actualizará progresivamente su estructura a las exigencias específicas de sus distintas actividades.

2. En la realización de sus actividades, la UPV/EHU se atenderá a los principios de legalidad, eficacia, eficiencia, transparencia, calidad y mejor servicio a la sociedad y a la Comunidad Universitaria.

Artículo 3

1. La denominación oficial de la Universidad es «Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea» o, de manera abreviada, UPV/EHU.

2. UPV/EHUren armari ofiziala Jakituria-
ren Zuhaitzaren alegoriazko irudia da, Eduardo
Chillidak egina. Goiko aldean «eman ta zabal
zazu» leloa dauka; beheko aldean, ezkerrean,
«Universidad del País Vasco» eta, eskuinean,
«Euskal Herriko Unibertsitatea».

3. Gobernu Kontseiluak arautuko du uniber-
sitatearen izena, armaria, zigilua eta gainerako
ikurrak nola erabili behar diren. UPV/EHUkoak
ez diren pertsonak edo erakundeek ezin izango
dituzte erabili unibertsitatearen izena, zigilua,
armari ofiziala eta ikurrak, baldin eta erreto-
reak horretarako baimena ematen ez badie be-
ren-beregi.

4. artikulua

1. Hauek dira UPV/EHUren helburuak:

a) Jakintza sortu, kritikatu eta zabaltzea eta
jakintzaren aurrerabidea eta gizartearen garape-
na sustatzea, ikerketaren bitartez eta ikerketaren
emaitzak gizarteratuz.

b) Euskal gizartearen ondare intelektual,
humanistikoa, kultural eta zientifikoa aberasteko
lanetan parte hartzea, baita ekonomia garape-
nean eta gizartearen ongizatean ere.

c) Kalitatezko goi mailako irakaskuntza
eskaintzea, ikasleen heziketa osoa bultzatzea,
eta lanean hasteko beharrezkoa den prestakun-
tza ziurtatzea.

d) Euskararen garapena eta normalizazioa
indartzea, bere eskumenen eremuan.

e) Profesionalen etengabeko prestakuntza
eta goi mailako irakaskuntza eskatzen duten
gizarteko beste taldeen etengabeko prestakun-
tza edo bizitza osoko prestakuntza sustatzea.

f) Unibertsitate zabalkuntza eta hedakuntza
bultzatzea, batez ere gizarte eta kultura mailen
arteko aldeak gutxitzea zuzenduak, bai eta
bizitza politiko, kultural eta sozialean hobeto
parte hartzeko baldintzak sortzea zuzenduak
ere.

2. El escudo oficial de la UPV/EHU, creado
por Eduardo Chillida, es la representación ale-
górica del Árbol de la Ciencia con la inscripción
en la parte superior del lema «eman ta zabal
zazu»; en la parte inferior izquierda, «Universi-
dad del País Vasco» y, en la parte inferior dere-
cha, «Euskal Herriko Unibertsitatea».

3. El Consejo de Gobierno regulará el uso
de la denominación de la Universidad, de su
Escudo, de su Sello y demás emblemas. Las
personas o entidades ajenas a la UPV/EHU no
podrán hacer uso de su denominación, Sello,
Escudo Oficial y emblemas, salvo autorización
expresa de la Rectora o Rector.

Artículo 4

1. Son fines de la UPV/EHU:

a) La creación, crítica y transmisión del
saber, contribuyendo al avance del conoci-
miento y al desarrollo social mediante la inves-
tigación y la transferencia de sus resultados a
la sociedad.

b) La participación en el enriquecimiento
del patrimonio intelectual, humanístico, cultural
y científico de la sociedad vasca y en su desa-
rrollo económico y bienestar social.

c) La educación superior de calidad que
contribuya a la formación integral de sus estu-
diantes y asegure su preparación profesional
para la inserción en el mundo laboral.

d) La contribución al desarrollo y a la nor-
malización del euskera desde su ámbito de ac-
tuación.

e) La formación continua de profesionales y
la formación permanente o a lo largo de la vida
de otros colectivos sociales que demanden en-
señanza superior.

f) La difusión y proyección universitarias,
orientadas en particular a la reducción de las
desigualdades sociales y culturales, y a la crea-
ción de las condiciones que permitan una me-
jor participación en la vida política, cultural y
social.

g) Nazioarteko trukea eta lankidetzaren indartzea, bereziki Europako esparruan eta garapenerako lankidetzaren alorrean.

h) Harremanak izatea eta hitzarmenak egitea erakunde publiko eta pribatuekin, UPV/EHUko tituludunen prestakuntza hobea izan dadin eta, ondorioz, lanean hasteko aukera gehiago izan dezaten.

2. UPV/EHUK honako hauek sustatuko ditu:

a) Unibertsitateko kide guztien errealizazio pertsonal eta profesionalerako bidea eskainiko duten baldintzak.

b) Premia bereziak dauzkaten pertsonak unibertsitateko kideen artean izatea.

c) Elkarbizitza demokratikoa eta euskal gizartearen garapen jasangarri eta bidezkoa, errefusatuta terrorismo eta biolentzia mota guztiak.

d) Mundura irekitako jardura plural, tolerantza eta solidarioa, aitzindari intelektual eta etikoa izateko bokazioaz.

3. UPV/EHUK emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatuko du bere baitan eta beharrezko neurriak hartuko ditu inor diskriminatua izan ez dadin arrazoi hauengatik: jatorria, etnia, sexua, erlijioa, iritzia, hizkuntza edo bestelako egoera pertsonal edo sozialen bat. Beraz, UPV/EHUK aintzat hartuko ditu honako printzipio hauek: aukera berdintasuna, aniztasunaren eta diferentziaren errespetua, genero ikuspegia txertatzea, ekintza positiboa, sexuari lotutako rola eta estereotipoak baztertzea, eta gizonen eta emakumeen ordezkariak parekatzea.

5. artikulua

1. UPV/EHUK autonomiaz jarduten du, estatutu hauei jarraiki eta legeek diotena kontuan hartuta.

2. Unibertsitateari bere autonomiak arauak egiteko eta antolamendua zehazteko ahalmena bermatzen dio. Bestek beste eskumen hauek dauka:

g) La contribución al intercambio y cooperación internacionales, con especial atención al marco europeo y a la cooperación al desarrollo.

h) El establecimiento de relaciones y acuerdos con instituciones y entidades públicas y privadas que permitan mejorar la preparación de sus tituladas y titulados y, en consecuencia, su incorporación al mercado.

2. La UPV/EHU:

a) Procurará las condiciones que faciliten la realización personal y profesional de todas y cada una de las personas que forman parte de ella.

b) Promoverá la integración en la Comunidad Universitaria de las personas con necesidades especiales.

c) Contribuirá a la promoción de la convivencia democrática y se compromete con el desarrollo justo y sostenible de la sociedad vasca, con rechazo de todo tipo de terrorismo y de violencia.

d) Desarrollará, con vocación de liderazgo intelectual y ético, una actividad abierta al mundo, plural, tolerante y solidaria.

3. La UPV/EHU garantizará la igualdad de las mujeres y los hombres que forman la Comunidad Universitaria y adoptará las medidas necesarias para prevenir o eliminar cualquier discriminación por razón de nacimiento, etnia, sexo, religión, opinión, lengua o cualquier otra condición o circunstancia personal o social. A estos efectos, la UPV/EHU tendrá en cuenta los principios de igualdad de oportunidades, respeto a la diversidad y a la diferencia, integración de la perspectiva de género, acción positiva, eliminación de roles y estereotipos en función del sexo y representación equilibrada.

Artículo 5

1. La UPV/EHU actúa en régimen de autonomía, de acuerdo con los presentes Estatutos y en el marco de las leyes.

2. La autonomía universitaria garantiza la capacidad autonormativa y de autoorganización. Comprende:

a) Estatutuak eta horiek garatzeko arauak egitea.

b) Gobernu, ordezkaritza eta administrazio organoak hautatu, izendatu eta kentzea.

c) Irakaskuntzaren, ikaskuntzaren, ikerketaren eta unibertsitate hedakuntzaren oinarri izango diren egitura espezifikoak eratzea.

d) Irakaskuntzaren, ikaskuntzaren eta ikerketaren plan estrategikoa egitea.

e) Ikasleak onartzea, iraute arauak zehaztea eta euren jakite maila egiaztatzea.

f) Titulu ofizialak eta berezko tituluak eta diplomak ematea.

g) Irakasle eta ikertzaileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen lanpostuen zerrendak onartu eta aldatzea, eta langileok hautatu, prestatu eta lanean gora egin dezaten sustatzea; era berean, lan baldintzak zehaztea.

h) Aurrekontuak prestatu, onartu eta kudeatzea eta ondarea administratzea.

i) Harremanak ezartzea beste erakunde batzuekin unibertsitatearen helburuak indartu eta aurrera eramateko.

j) Esleitutako eginkizunak betetzeko beharrezkoa izan daitekeen beste edozein eskumen ere izango du eta, horrez gain, arautu eta garatu egingo ditu legeetan eta arautegietan jasota ez dauden gaiak, bai eta beste organo edo erakunde batzuek esleituta ez dituztenak ere.

3. UPV/EHUK katedra askatasuna onartu eta bermatzen du.

4. UPV/EHUK, administrazio publikoa den aldetik, eta dagokion arloaren barruan, kasuan kasuko eskumen eta ahalmenak izango ditu eta, edonola ere, honako hauek:

a) Mota guztietako ondasunak erosi, eduki, aldarrikatu, trukatu, kargak ezarri eta inoren-

a) La elaboración de sus Estatutos y de sus normas de desarrollo.

b) La elección, designación y remoción de sus órganos de gobierno, representación y administración.

c) La creación de estructuras específicas que actúen como soporte de la docencia, del estudio y de la investigación y de la proyección universitaria.

d) La planificación estratégica de la docencia, del estudio y de la investigación.

e) La admisión, régimen de permanencia y verificación de conocimientos de sus estudiantes.

f) La expedición de los títulos de carácter oficial y de sus diplomas y títulos propios.

g) El establecimiento y modificación de sus relaciones de puestos de trabajo y la selección, formación y promoción del personal docente e investigador y de administración y servicios, así como la determinación de sus condiciones de trabajo.

h) La elaboración, aprobación y gestión de sus presupuestos y la administración de su patrimonio.

i) El establecimiento de relaciones con otras entidades para la promoción y desarrollo de sus fines.

j) Cualquier otra competencia en el ámbito de las funciones que tiene asignadas, así como la regulación y desarrollo normativo de las materias que no se encuentren reguladas en las leyes y en sus reglamentos de desarrollo, ni atribuidas a otros órganos o instituciones.

3. La UPV/EHU reconoce y garantiza la libertad de cátedra.

4. Asimismo, la UPV/EHU, en su calidad de administración pública y dentro de la esfera de sus competencias, ostentará las prerrogativas y potestades propias de ésta y, en todo caso, las siguientes:

a) La plena capacidad jurídica para adquirir, poseer, reivindicar, permutar, gravar o enajenar

tzeko gaitasun juridiko osoa; kontratu, hitzarmen eta negozio juridikoak egitekoa; obrak eta zerbitzuak ezarri eta ustiatzekoa; beharrezkoa; errekurtsoak jartzekoa eta legeetan xedatutako ekintzak aurrera eramatekoa.

b) Bere ondasunak ikertu, zedarritu eta bere kabuz berreskuratzeko ahalmena.

c) Bere egintzen legezotasun ustea eta bete beharrezkotasuna.

d) Derrigor betearazteko eta zigortzeko ahalmenak.

e) Bere egintzak eta erabakiak bere kabuz berraztertzeko ahalmena.

f) Bere ondasun eta eskubideak ezin bahitua, legeetan ezartzen denaren arabera; Herri Ogasunari bere hartzekoei dagokienez aitortzen zaizkion lehenespen eta lehentasunak, estatu eta foru ogasunei dagozkien kaltetan izan gabe.

g) Edozein motatako prozeduretan bermeak, gordailuak eta kauzioak organo administratibo edo jurisdikzionaleri aurkeztetik salbuetsita egotea, Euskal Autonomia Erkidegoaren baldintza berberetan, eta justiziako zerbitzuak ordaindu behar ez izatea auzietan.

5. UPV/EHUko gobernu organoek emango dituzten aplikazio orokorreko xedapenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, baita ere ikasleen eskubideen eta betebeharren garapenari buruzko arauak.

6. artikulua

1. UPV/EHUK askatasun akademikoan oinarritzen du bere jarduna eta autonomia; eta hori bermatuz gauzatzen du ikasteko askatasuna, katedra askatasuna eta ikertzeko askatasuna.

2. UPV/EHUK oinarritzeko eskubide eta askatasunak bermatuko ditu bere eskumenen eremuan, bai eta printzipio eta balio demokratikoen errespetua ere.

3. UPV/EHUren gidariak dira zientziaren izpiritu kritikoa eta aniztasun ideologikoaren errespetua.

toda clase de bienes, celebrar contratos, convenios y negocios jurídicos, establecer y explotar obras y servicios, obligarse, interponer los recursos establecidos y ejercitar las acciones previstas en las leyes.

b) La potestad de investigación, deslinde y recuperación de oficio de sus bienes.

c) La presunción de legitimidad y la ejecutividad de sus actos.

d) Las potestades de ejecución forzosa y sancionadora.

e) La potestad de revisión de oficio de sus actos y acuerdos.

f) La inembargabilidad de sus bienes y derechos en los términos previstos en las leyes, las prelacións y preferencias reconocidas a la Hacienda Pública para los créditos de la misma, sin perjuicio de las que correspondan a las Haciendas del Estado y Forales.

g) La exención de garantías, depósitos y cauciones ante cualquier órgano administrativo o jurisdiccional en cualquier tipo de procedimiento en las mismas condiciones que la Comunidad Autónoma del País Vasco, litigando con el beneficio de justicia gratuita.

5. Las disposiciones de general aplicación que dicten los órganos de gobierno de la UPV/EHU, así como las normas que regulen el desarrollo de los derechos y los deberes de las y de los estudiantes, serán publicadas en el Boletín Oficial del País Vasco.

Artículo 6

1. La UPV/EHU fundamenta su actividad y autonomía en la libertad académica, que se concreta en la garantía de la libertad de estudio, la libertad de cátedra y la libertad de investigación.

2. La UPV/EHU garantiza, en el ámbito de sus competencias, el ejercicio de los derechos y libertades fundamentales y el respeto de los principios y valores democráticos.

3. La UPV/EHU se inspira en el espíritu crítico de la ciencia y en el respeto al pluralismo ideológico.

7. artikulua

1. UPV/EHUK beste unibertsitate batzuekin jardungo du elkarlanean, eta harremanak izango ditu ikerguneekin eta kultura eta gizarte erakundeekin.

2. UPV/EHUK, batez ere, Euskal Herriko unibertsitate mailako beste ikastegi publikoekin eta kultura erakundeekin izango ditu lankidetzak harremanak, euskal kulturaren zerbitzura egongo den unibertsitate sisteman txertatzeko horiek guztiak apurka-apurka.

8. artikulua

1. UPV/EHUKo hizkuntza ofizialak euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza, eta gaztelania dira.

2. UPV/EHUK arreta berezia eskainiko die euskal kulturari eta euskarari, esparru zientifiko eta teknikoan nagusiki.

3. UPV/EHUK neurriak hartuko ditu euskararen erabilera normaltzeko unibertsitateko irakaskuntzan, ikerketa zientifikoan eta administrazioaren eta zerbitzuen alorreko jardueran.

9. artikulua

UPV/EHUK sustatu egingo du zientziarako erabiltzen diren beste hizkuntzak jakitea eta, era berean, bultzatu egingo du hizkuntza horien erabilera jarduera akademikoetan.

10. artikulua

1. Honakoa da UPV/EHUren egitura:

- a) Unibertsitate campusak.
- b) Eskolak eta fakultateak.
- c) Sailak.
- d) Unibertsitateko ikerketa institutuak.
- e) Doktorego eskolak.

f) Indarrean egongo den legeria eta estatu-tuok aplikatuta sortu ahal izango diren beste-lako gune edo egiturak.

Artículo 7

1. La UPV/EHU promoverá la colaboración con otras Universidades y mantendrá relaciones con Centros de Investigación e Instituciones culturales y sociales.

2. De modo especial, la UPV/EHU impulsará relaciones de cooperación con los demás Centros públicos de enseñanza universitaria e instituciones culturales de Euskal Herria, de cara a la progresiva articulación de los mismos en un sistema universitario al servicio de la cultura vasca.

Artículo 8

1. El euskera, como lengua propia del Pueblo Vasco, y el castellano son las lenguas oficiales de la UPV/EHU.

2. La UPV/EHU prestará particular atención a la cultura vasca y, dentro de ella, al euskera, especialmente en sus aspectos científicos y técnicos.

3. La UPV/EHU adoptará las medidas oportunas, para la normalización del uso del euskera en la enseñanza universitaria, en la investigación científica y en la actividad administrativa y de servicios.

Artículo 9

La UPV/EHU impulsará el conocimiento de otras lenguas en que se desarrolle la ciencia y su uso en las actividades académicas.

Artículo 10

1. La UPV/EHU se integra por las estructuras siguientes:

- a) Campus Universitarios.
- b) Escuelas y Facultades.
- c) Departamentos.
- d) Institutos Universitarios de Investigación.
- e) Escuelas de Doctorado.

f) Otros Centros o estructuras que puedan crearse en aplicación de la legislación vigente y de los presentes Estatutos.

2. Honako hauek ere osatzen dute UPV/EHU: administrazio zerbitzu orokorrak; arestian aipatutako egiturei laguntza ematen dietenak; VI. tituluari xedatutakoak; eta, banaka zein multzoka, aurreko puntuan adierazita dauden eta ez dauden gainerako administrazio eta zerbitzuetako atalak.

11. artikulua

1. Honako hauek dira UPV/EHUko kide anitzeko gobernu eta ordezkari organoak:

- a) Gizarte Kontseilua.
- b) Unibertsitateko Klaustroa.
- c) Gobernu Kontseilua.
- d) Campusetako batzarrak.
- e) Fakultate, eskola edo gune akademikotako batzarrak.
- f) Saitetako kontseiluak.
- g) Unibertsitateko ikerketa institutueta kontseiluak.
- h) Doktorego eskoletako batzarrak edo kontseiluak.
- i) Estatutu hauetan xedatutako batzordeak.

2. Honako hauek dira kide bakarreko gobernu eta ordezkari organoak:

- a) Errektorea.
- b) Idazkari nagusia.
- c) Errektoreordeak.
- d) Gerentea.
- e) Gerenteordeak.
- f) Errektoreordetzeko zuzendariak.
- g) Campusetako idazkariak.
- h) Fakultateetako dekanak eta eskoletako zuzendariak.
- i) Fakultateetako dekanordeak eta eskoletako zuzendariordeak.
- j) Fakultate eta eskoletako idazkariak.

2. También integran la UPV/EHU los Servicios Administrativos Generales, los que sirven a las estructuras mencionadas, los regulados en el Título VI y las demás unidades administrativas y de servicios que, agrupadas o independientes, formen parte o no del apartado anterior.

Artículo 11

1. Son órganos colegiados de gobierno y representación de la UPV/EHU:

- a) El Consejo Social.
- b) El Claustro Universitario.
- c) El Consejo de Gobierno.
- d) Las Juntas de Campus.
- e) Las Juntas de Facultad, de Escuela o de Centro.
- f) Los Consejos de Departamento.
- g) Los Consejos de Institutos Universitarios de Investigación.
- h) Las Juntas o Consejos de Escuelas de Doctorado.
- i) Las Comisiones previstas en los presentes Estatutos.

2. Son órganos unipersonales de gobierno y representación:

- a) Rectora o Rector.
- b) Secretario o Secretaria General.
- c) Vicerrectoras o Vicerrectores.
- d) Gerente o Gerenta.
- e) Vicegerentes o Vicegerentas.
- f) Directores o Directoras de Vicerrectorados.
- g) Secretarios o Secretarías de Campus.
- h) Decanas o Decanos de Facultades y Directores o Directoras de Escuelas.
- i) Vicedecanas o Vicedecanos de Facultades y Subdirectores o Subdirectoras de Escuelas.
- j) Secretarías o Secretarios de Facultades y Escuelas.

k) Saitetako zuzendariak eta idazkariak.

l) Unibertsitateko ikerketa institutueta-ko zuzendariak eta idazkariak.

m) Doktorego eskoletako zuzendariak.

n) Beste gune edo egitura batzuetako zuzendariak.

3. UPV/EHUko aldezlea ere pertsona baka-
reko organotzat hartuko da.

4. Ikasleen kontseiluak dira ikasleen kide
anitzeko ordezkariak organoak. Kontseiluetako
presidenteak kide bakarreko ordezkariak
organotzat hartuko dira. Kontseiluen oinarriko
arauegian zehaztutako gainontzekoek ere izan
dezakete izaera hori.

5. Oinarriko arauetiek jaso egingo dute
unibertsitateko egituretan beste gobernu eta
ordezkariak organo batzuk egoteko aukera, ze-
haztuta zeintzuk eskumen izan ditzaketan es-
kuordetuta.

II. TITULUA. UNIBERTSITATEKO KIDEAK

I. kapitulua. Xedapen orokorrak

12. artikulua

Unibertsitateko kideak hiru taldetan daude
banatuta: ikasleak, irakasle eta ikertzaileak, eta
administrazio eta zerbitzuetako langileak.

13. artikulua

1. Unibertsitateko kideek eskubide hauek
izango dituzte, gainerako arauetan eta estatutu
hauetako beste artikuluetan jasotakoek gain:

a) Pentsamendu, iritzi eta adierazpen aska-
tasuna.

k) Directoras o Directores y Secretarias o
Secretarios de Departamentos.

l) Directores o Directoras y Secretarias o
Secretarios de Institutos Universitarios de In-
vestigación.

m) Directoras o Directores de Escuelas de
Doctorado.

n) Directores o Directoras de otros Centros
o estructuras.

3. Tiene también la consideración de órgano
unipersonal la o el Aldeze (Defensora o Defen-
sor Universitario de la UPV/EHU).

4. Los Consejos de Estudiantes son los ór-
ganos colegiados de representación del alumna-
do. Los y las Presidentas de los respectivos
Consejos tendrán la consideración de órganos
unipersonales de representación. También po-
drán tener igual carácter los así reconocidos por
su Reglamento Marco.

5. A través de los Reglamentos Marco se
podrá reconocer la existencia de otros órganos
de gobierno y representación en las estructuras
universitarias, delimitando las competencias
que les puedan ser delegadas.

TÍTULO II. DE LA COMUNIDAD UNIVERSITARIA

Capítulo I. Disposiciones comunes

Artículo 12

La Comunidad Universitaria está formada
por tres colectivos: el alumnado, el personal
docente e investigador y el personal de admi-
nistración y servicios.

Artículo 13

1. Las personas que integran la Comunidad
Universitaria, además de los reconocidos en el
resto del ordenamiento y en otros artículos de
los presentes Estatutos, tendrán los siguientes
derechos:

a) A la libertad de pensamiento, opinión y
expresión.

b) Bilerak egiteko eta elkarteak eratzeko askatasuna.

c) Berdintasunerako eskubidea eta diskriminatuak ez izatekoa.

d) Norberaren intimitatea, irudi propioa, duintasuna eta joera sexuala errespetatzea, eta jazarpenaren aurkako babesa izatea.

e) UPV/EHUko gobernu eta ordezkaritza organoetan parte hartzea.

f) Beraengan eragina duten unibertsitateko gaiei buruzko informazioa jasotzea.

g) Osasuna zaintzeko eta arriskuei aurrea hartzeko babesa jasotzea, campusetan.

h) Eskubideak bermatua izatea, prozedura egokien bitartez eta, beharrezkoa bada, aldezleak esku hartuta.

2. Unibertsitateko kideek betebeharrak hauek izango dituzte, gainerako arauetan eta estatutu hauetako beste artikuluetan jasotakoez gain:

a) Beste pertsona guztien eskubideak errespetatzea eta estatutu hauei eta gainerako arauari jarraiki aritzea.

b) Beste pertsona guztiak errespetuz eta diskriminatzeke tratatzea.

c) Egin beharreko lanak profesionaltasunez betetzea, unibertsitateko gainerako kideekin elkarlanean, UPV/EHUren helburuak betetzeko eta, modu horretara, funtzionamendu hobea lortzeko.

d) Hautatuak eta/edo izendatuak izan diren karguetan arduraz eta erantzukizunez aritzea.

e) UPV/EHUren ondarea, ondasunak, baliabide materialak eta instalazioak behar bezala eta arretaz erabiltzea.

f) Arrazoirik gabeko tratu bereziak edo abantailak ez onartzea.

3. Estatutuotan aipatutako eskubideak erabiltzeko ez die ekarriko unibertsitateko ki-

b) A la libertad de reunión y asociación.

c) A la igualdad y a la no discriminación.

d) Al respeto de su intimidad, imagen propia, dignidad, orientación sexual y protección efectiva contra el acoso.

e) A la participación en los órganos de gobierno y representación de la UPV/EHU.

f) A ser debidamente informadas de las cuestiones universitarias que les afecten.

g) A recibir una protección eficaz en materia de salud y prevención de riesgos dentro de los Campus Universitarios.

h) A la garantía de sus derechos, mediante procedimientos adecuados y, en su caso, con la actuación del o de la Aldezle.

2. Las personas que integran la Comunidad Universitaria, además de los establecidos en el resto del ordenamiento y en otros artículos de los presentes Estatutos, tendrán los siguientes deberes:

a) Respetar los derechos de las demás personas y actuar conforme a los presentes Estatutos y demás normas jurídicas.

b) Tratar con respeto y sin discriminación a las demás personas.

c) Asumir con profesionalidad las tareas que les corresponden, en cooperación con las demás personas de la Comunidad Universitaria, para la consecución de los fines de la UPV/EHU, contribuyendo a la mejora de su funcionamiento.

d) Ejercer con dedicación y responsabilidad los cargos para los que hubieran sido elegidas y/o nombradas.

e) Utilizar debida y cuidadosamente el patrimonio, los bienes, los medios materiales y las instalaciones de la UPV/EHU.

f) No aceptar ningún trato de favor o situación de privilegio injustificada.

3. El ejercicio de los derechos reconocidos a lo largo de los presentes Estatutos, siempre

deei inolako ondorio edo kalterik diziplina alorrean, baldin eta indarrean dagoen legeriari jarri erabiltzen badira.

14. artikulua

UPV/EHUko artxiobotan dauden datu pertsonalak bildu, erabili eta hedatzeko eta interesdunek datuok eskuratu eta zuzentzeko, datu pertsonalen tratamendu automatizatua arautzen duen legea beteko du unibertsitateak.

II. kapitulua. Ikasleak

15. artikulua

Hauek dira UPV/EHUko ikasleak: titulu ofizialetara zuzendutako ikasketetan matriculatuta dauden pertsonak, berezko tituluetara zuzendutakoetan matriculatuta daudenak, eta bizitza osoko prestakuntzaren alorreko ikasketa berezietan matriculatutakoak.

16. artikulua

1. UPV/EHUK irakats baldintza egokiak eta eskaintza osagarriak jarriko ditu honako hauek sustatzeko: ikasleen garapen pertsonala, prestakuntza osoa, ikerketa eta garapen zereginetan aritzeko aukera UPV/EHUn bertan zein unibertsitateak sortutako erakundeetan edo parte hartzen duenetan, heziketa praktikoa osatzeko bidea, eta gizartera eta lan mundura sartzeko era. Hori dela eta, hitzarmenak egingo dira hezkuntza lankidetzarako eta praktikak egiteko enpresetan eta erakunde publiko edo pribatuetan. Gainera, ikasleen eta tituludunen lan poltsak bultzatuko ditu, eta horiek enpresak sortzea. Era berean, ikasleen parte hartzea eta elkarteak eratzea sustatuko du.

2. UPV/EHUK laguntza sistema zabala bultzatuko du horretarako.

17. artikulua

1. UPV/EHUko ikasleek eskubide hauek izango dituzte, indarrean dagoen legerian eta

que se realice en el marco de la legislación vigente, en ningún caso podrá dar lugar a consecuencias disciplinarias o perjudiciales.

Artículo 14

La recogida, tratamiento, derechos de acceso y rectificación y cesión de los datos de carácter personal contenidos en los archivos de la UPV/EHU se efectuará de acuerdo con lo establecido en la legislación relativa al tratamiento automatizado de los datos de carácter personal.

Capítulo II. Del alumnado

Artículo 15

Son estudiantes de la UPV/EHU todas las personas que se hallen matriculadas en enseñanzas conducentes a titulaciones oficiales, propias o en otras enseñanzas específicas de formación a lo largo de toda la vida.

Artículo 16

1. La UPV/EHU promoverá las condiciones docentes y las ofertas complementarias dirigidas a favorecer el desarrollo personal del alumnado, su formación integral, la colaboración en actividades de investigación y desarrollo en la propia UPV/EHU o en entidades creadas o participadas por ella, el complemento de su formación práctica y su inserción social y laboral. A tal fin, se suscribirán convenios de cooperación educativa y de prácticas en empresas e instituciones de carácter público o privado y se promoverá la creación de bolsas de trabajo de estudiantes y personas tituladas universitarias y la creación de empresas por parte de éstas. Asimismo, se promoverá la participación y el asociacionismo estudiantil.

2. A estos efectos, la UPV/EHU promoverá un sistema amplio de ayudas.

Artículo 17

1. Las y los estudiantes de la UPV/EHU, sin perjuicio de otro derecho o facultad reconocido

estatutu hauetan jasotako beste eskubide edo ahalmenez gain:

a) UPV/EHU ikastea, aukera berdintasuna errespetatuta eta indarrean dagoen unibertsitate legeriari jarraiki.

b) Irakaskuntzako programazioan zehaztutakoaren arabera aukeratutako hizkuntza ofizialean ikastea eta ebaluazio probak hizkuntza horretan egitea.

c) Irakats eskaintza matrikula egin aurretik ezagutzea, hau da, eskolak emango dituzten irakasleak, eskoletako hizkuntza, ebaluazio probak egiteko egunak, eta kasuan kasuko deialdiak.

d) Irakasgaiak aukeratzea, irakats programazioak eta ikastegiak eskura dauzkan baliabideek horretarako aukera ematen duten neurrian, eta jakinda irakasleak nortzuk izango diren.

e) Ikasketak eta kultura eta kirol jarduerak behar bezala egiteko instalazio eta material egoiak izatea.

f) Ikasketen antolaketan parte hartzea, unibertsitateko organoen bitartez eta, halakorik gertatuz gero, ikerketako zereginetan laguntzea.

g) Tutoretza eta orientazio sistema eraginkorra izatea prestakuntzan zehar, curriculum osatu ahal izateko.

h) Irakasle eta ikertzaileen ebaluazioan eta administrazioko zerbitzuen ebaluazioan parte hartzea eta ebaluazio horiei buruzko informazioa jasotzea, onartutako prozedurei eta indarreko legeriari jarraiki.

i) Emaitza akademikoak baloratzeko irizpide objektiboak ezagutzea eta kalifikazioak berrikustea. Eskoletara ez joateak, besterik gabe, ez du ekarriko eskubide hau galtzea, eta Ikasle Arautegiak arautuko du.

j) Prezio publiko edo tasetatik salbuetsita egotea, legerian xedatutakoari jarraiki; eta laguntzak jasotzea, kasuan kasuko baldintzen arabera.

en la legislación vigente y en los presentes Estatutos, tendrán los siguientes derechos:

a) Al estudio en la UPV/EHU con igualdad de oportunidades y en el marco de la normativa universitaria en vigor.

b) A estudiar y realizar la evaluación en cualquiera de las lenguas oficiales elegida en el marco de la programación docente.

c) A conocer antes de realizar la matrícula, la oferta docente, incluyendo previsión de profesorado, lengua de impartición, fechas de realización de las pruebas de evaluación y cualquier convocatoria que les afecte.

d) A elegir docencia, con su profesorado, dentro de las posibilidades ofrecidas por la programación docente y en el marco de las disponibilidades del Centro.

e) A disponer de instalaciones y materiales adecuados para el normal desarrollo de sus estudios y de las actividades culturales y deportivas.

f) A participar en la organización de las enseñanzas a través de los órganos universitarios y, en su caso, colaborar en las tareas investigadoras.

g) A disfrutar durante su formación de un sistema eficaz de tutorías y de orientación para la configuración de su currículum.

h) A participar en la evaluación docente del personal docente e investigador y en la evaluación de los servicios administrativos, así como a recibir información de dichas evaluaciones, conforme a los procedimientos establecidos y a la legislación vigente.

i) A la valoración objetiva de su rendimiento académico y a la revisión de las calificaciones. La inasistencia a clase, por sí sola, no constituirá un impedimento para el ejercicio de este derecho, que se regulará en el Reglamento del Alumnado.

j) A la exención de precios públicos o tasas legalmente reconocidos y a las ayudas previstas con los condicionamientos que, en su caso, se establezcan.

k) Mugikortasuna bermatuko duen administrazio eta finantza laguntza jasotzea, aurrekontuaren arabera.

l) Unibertsitatean adierazpen askatasuna, bilerak egitea eta elkarteak eratzea bermatuko duten bitartekoak izatea.

m) Beren eskubideak defendatzea eta beren aldarrikapenak eta protesta akademikoak egitea, Ikasleen Arautegian zehaztuta egongo den moduan.

n) Unibertsitatearen aitoren akademikoa jasotzea ikasleen ordezkari izateagatik, baita ere unibertsitateko kultura eta kirol ekintzetan eta elkartasun eta lankidetzan parte hartzeagatik.

o) Ikasketak eta lana aldi berean egitea bideratuko duen laguntza izatea.

p) Beren lan esperientzia edo esperientzia profesionala onartua izatea, ondorio akademikoetarako, UPV/EHUK ezarriko dituen baldintzei jarraiki.

18. artikulua

1. Gobernu Kontseiluak, UPV/EHUKo Ikasleen Kontseilua entzun ondoren, Ikasleen Arautegia onartuko du, ikasleen eskubide eta betebeharrak garatuko dituena. Horrez gain, ikasleak ebaluatzeko arautegia onartuko du, ikasleek ikasketetan duten etekina modu objektiboan ebaluatuko dela eta kalifikazioak berrikusteko eskubidea bermatuko dela ziurtatuko duena.

2. Arautegi horrek Ikasleen Ordezkarien Estatutua jasoko du, ikasleek organoetan izango duten ordezkaritza zehaztuko duena.

3. Halaber, UPV/EHUKo ikasleen elkarten parte hartzeko mekanismoak arautu eta zehaztuko ditu.

4. Gobernu Kontseiluaren proposamenari jarraituz, UPV/EHUKo Gizarte Kontseiluak UPV/EHUKo iraute arauak onartuko ditu.

k) A recibir el apoyo administrativo y financiero necesario para garantizar su movilidad, de acuerdo con las disponibilidades presupuestarias.

l) A disponer de los medios que garanticen el ejercicio de la libertad de expresión, reunión y asociación en el ámbito universitario.

m) A la defensa de sus derechos y al ejercicio de sus reivindicaciones y protestas académicas en los términos que regule el Reglamento del alumnado.

n) A obtener reconocimiento académico por su participación en actividades universitarias culturales, deportivas, de representación estudiantil, solidarias y de cooperación.

o) A una atención que facilite compaginar los estudios con la actividad laboral.

p) A la validación, a efectos académicos, de la experiencia laboral o profesional, de acuerdo con las condiciones que fije la UPV/EHU.

Artículo 18

1. El Consejo de Gobierno aprobará, previa audiencia del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU, el Reglamento del Alumnado que desarrollará sus derechos y deberes, así como, la normativa de evaluación que garantizará la valoración objetiva de su rendimiento académico y el derecho a la revisión de las calificaciones.

2. Dicho Reglamento contendrá el Estatuto de la Representación Estudiantil en los diferentes niveles.

3. Así mismo, regulará y definirá los mecanismos de participación de las asociaciones estudiantiles en la UPV/EHU.

4. A propuesta del Consejo de Gobierno, el Consejo Social de la UPV/EHU aprobará las normas que regulen la permanencia en la UPV/EHU.

19. artikulua

Hauek dira UPV/EHUko ikasleen betebeharrak:

a) Ikastea eta, doktoregoko ikasleen kasuan, ikertzea.

b) Erantzukizunez eta objektibotasunez aritzea ebaluazio prozesuetan, helburutzat hartuta unibertsitateko jardunaren kalitatea hobetzea.

c) Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan modu aktiboan parte hartzea, onartutako prozedurak eta epeak errespetatuta.

20. artikulua

1. UPV/EHUko Ikasleen Kontseilua ikasleen ordezkari organoa da, eta honako hauek osatuko dute modu parekidean: campusetako ikasleen kontseiluetako ordezkariak eta ikasleek Gobernu Kontseiluan dauzkaten ordezkariak. Campusetako ikasleen kontseiluen ordezkarien kopurua campus bakoitzeko ikasle kopuruaren arabera izango da, eta, gutxienez, campus bakoitzeko ordezkari bat egongo da. Ikasleen Kontseiluko burua kontseiluko kideek aukeratuko dute beraien artean.

2. Hauek dira Ikasleen Kontseiluaren eginkizun nagusiak:

a) Ikasleen ordezkaria izatea UPV/EHUko organoetan.

b) Ikasleen eskubideak betetzen direla zaintzea, eta betetzeko eskatzea.

c) UPV/EHUren aurrekontuetan esleiturik duen aurrekontua nola banatuko den erabakitzea.

d) Entzuna izatea, Gobernu Kontseiluak Ikasleen Arautegia onartu aurretik.

e) Ikasleei informazioaren berri ematea, horretarako izango dituen bitartekoak erabilita.

f) Ekimenak bultzatu eta sustatzea, unibertsitateko ikasleen baldintza orokorrak hobetzeko.

Artículo 19

Son deberes de cada estudiante de la UPV/EHU:

a) El estudio y, en el caso de ser estudiante de doctorado, la investigación.

b) Actuar con responsabilidad y objetividad en los procesos de evaluación en los que participe, y teniendo como finalidad mejorar la calidad de la actividad universitaria.

c) Participar, en calidad de sujeto activo, en el proceso de enseñanza aprendizaje, respetando los procedimientos y los plazos establecidos.

Artículo 20

1. El Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU, órgano de representación del alumnado, estará integrado de forma paritaria por representantes de los Consejos de Estudiantes de Campus y por la representación del alumnado en el Consejo de Gobierno. El número de representantes de los Consejos de Estudiantes de Campus se asignará de forma proporcional al alumnado de cada Campus, garantizando, al menos, una representación por cada Campus. El Presidente o la Presidenta será elegida por y de entre sus integrantes.

2. Son sus funciones principales:

a) Representar al alumnado ante los distintos órganos de la UPV/EHU.

b) Velar y exigir el cumplimiento de los derechos de alumnas y alumnos.

c) Decidir la distribución de su propio presupuesto, consignado como tal en los Presupuestos de la UPV/EHU.

d) Ser oído antes de la aprobación del Reglamento del Alumnado por el Consejo de Gobierno.

e) Informar a sus representados y representadas a través de los medios de que dispongan.

f) Fomentar y promover las iniciativas para la mejora de las condiciones generales del alumnado de la Universidad.

g) Ikasleei dagozkien ekimenak kudeatzea eta gatazkak ebaztea, bere eskumenen babesean.

h) Ikuskaritza Zerbitzuarekin elkarlanean aritzea, ikasleen irakaskuntza eskubideak bermatzeko neurriei dagokienean.

i) Ikasleen parte hartzea bultzatzea.

j) Estatutuok eta hauek garatzeko arautegiek esleitutako jarduerak aurrera eramatea.

21. artikulua

1. Campuseko Ikasleen Kontseilua honako hauek osatuko dute: campuseko ikastegi bakoitzeko ikasleen ordezkari batek eta campuseko ikasleek Gobernu Kontseiluak dauzkaten ordezkariak.

2. Ikastegiek Campuseko Ikasleen Kontseiluan izango dituzten ordezkariak ikasleen ordezkariak aukeratuko dituzte beren artetik Ikastegiko Batzarrean.

3. Campuseko Ikasleen Kontseilu bakoitzak bere kideen artetik izendatuko du kontseilu horretako burua. Campusetako ikasleen kontseiluetako buruak edo haiek eskuordetzen dituzten pertsonak UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko kideak izango dira.

4. Hauek dira Campuseko Ikasleen Kontseiluaren eginkizunak:

a) Campuseko Batzarrean izango dituen ordezkariak aukeratzea.

b) UPV/EHUren aurrekontuetan esleiturik duen aurrekontua nola banatuko den erabakitzea.

c) Campuseko ikastegietako ikasleen kontseiluen ekintzak bultzatu eta sustatzea.

d) Ikasleei eragiten dieten ekimenak kudeatu eta gatazkak konpontzea, bere eskumenen babesean.

e) Ikuskaritza Zerbitzuarekin elkarlanean aritzea ikasleen irakaskuntza eskubideak bermatzeko neurriei dagokienean.

g) Gestionar las iniciativas y la resolución de conflictos que afecten al alumnado, en el marco de sus competencias.

h) Colaborar, en su caso, con el Servicio de Inspección en las medidas para garantizar los derechos docentes del alumnado.

i) Fomentar la participación del alumnado.

j) Desarrollar las actuaciones que se le encomiendan en los presentes Estatutos y en su normativa de desarrollo.

Artículo 21

1. El Consejo de Estudiantes de Campus estará compuesto por un o una representante del alumnado de cada uno de los Centros Docentes pertenecientes al mismo y por la representación del alumnado del respectivo Campus en el Consejo de Gobierno.

2. La representación de los Centros Docentes en este Consejo de Estudiantes de Campus se elegirá por y de entre la representación del alumnado en la correspondiente Junta de Centro.

3. Cada Consejo de Estudiantes de Campus designará a su Presidenta o Presidente de entre sus componentes. La o el Presidente, o persona en quien delegue, integrará el Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU.

4. Serán funciones del Consejo de Estudiantes de Campus:

a) Elegir a sus representantes en la Junta de Campus.

b) Decidir la distribución de su propio presupuesto, consignado como tal en los Presupuestos de la UPV/EHU.

c) Apoyar e impulsar las actividades de los consejos de estudiantes de Centro ubicados en el Campus.

d) Gestionar las iniciativas y la resolución de conflictos que afecten al alumnado, en el marco de sus competencias.

e) Colaborar, en su caso, con el Servicio de Inspección en las medidas para garantizar los derechos docentes del alumnado.

f) Estatutuok eta hauek garatzeko arategiek esleitutako jarduerak aurrera eramatea.

5. Campus bakoitzari dagokio, unibertsitateko organo orokorrekin elkarlanean, kasuan kasuko Campuseko Ikasleen Kontseiluak bultzatutako ekintzak antolatu eta horiek aurrera eramateko laguntza ematea.

22. artikulua

1. Ikastegi edo ataletako ikasleen kontseiluak Ikastegiko Batzarrean ikasleen ordezkari direnek osatuko dituzte, eta Ikastegietako Ikasleen Kontseiluen Oinarrizko Arautegian zehaztutakoaren arabera jardungo dute.

2. Ikastegiko ikasleen kontseilu bakoitzak bere kideen artean izendatuko du kontseilu horretako burua. Ikastegietako ikasleen kontseiluetako buruak edo haiek eskuordetzen dituzten pertsonak Campuseko Ikasleen Kontseiluko kideak izango dira.

3. Hauek dira ikastegi edo ataletako ikasleen kontseiluen eginkizunak:

a) UPV/EHUren aurrekontuetan esleiturik duen aurrekontua nola banatuko den erabakitzea.

b) Ikasleen ordezkariak izatea ikastegietako organoetan.

c) Ikasleen eskubideak betetzen direla zaindteza, eta betetzeko eskatzea.

d) Graduak ikasleek sailetan izango dituzten ordezkariak izendatzea, Ikastegietako Ikasleen Kontseiluen Oinarrizko Arautegian jasoko den moduan.

III. kapitulua. Irakasleak eta ikertzaileak

23. artikulua

1. UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileak unibertsitateko irakasleen kidegoetako funtzionarioak eta langile kontratatuak izango dira.

f) Desarrollar las actuaciones que se le encomiendan en los presentes Estatutos y en su normativa de desarrollo.

1. Saileko Kontseiluak ohiko bilera egingo du urtean behin gutxienez, eta ezohiko bilera egingo du kideen heren batek edo kidego bateko kide guztiek hala eskatzen dutenean.

2. Hauek dira Saileko Kontseiluaren eginkizunak:

a) Saileko zuzendaria hautatzea arautegiak xedatutakoari jarraiki.

b) Urteko txosten ekonomikoa, saileko irakaskuntzaren eta ikerketaren memoria, eta eginkizunen plana onartzea.

c) Urteko irakats eskaintza programatu eta ebaluatzeko irizpideak onartzea.

d) Saileko irakasleei irakats betebeharrak eta haien balizko aldaketak esleitzea.

e) Irakasgaien oinarrizko programak ezartzea, kasuan kasuko ikasketa planaren barruan.

f) Masterreko, doktoregoko eta gainerako ikasketetako (unibertsitateko berezko tituluetako ikasketak izan edo ez) eskaintzak proposatzea.

g) Doktorego tesiak ebaluatu behar dituzten pertsonak izendatzeko proposamenak onartzea legeak baimendutako baldintzetan, bai eta bestelako epaimahaietako kideak izendatzekoak ere.

h) Saileko irakasle eta ikertzaileen ikerketa jarduerak eta ekimenak bultzatzea.

i) Plaza berriak eskatzea eta saileko langileen lanpostuen zerrendan egin beharreko aldaketak proposatzea.

j) Irakasleen lanari buruzko txosten arrazoi-
tuak egitea, irakaskuntza merezimenduak esleitu eta kontratuak berritze aldera.

Secciones Departamentales y representantes de los tres sectores, de conformidad con lo previsto en el Reglamento Marco de Departamentos.

Artículo 211

1. El Consejo de Departamento se reunirá con carácter ordinario, al menos, una vez al año y a petición de un tercio de sus componentes o de la totalidad de un colectivo, con carácter extraordinario.

2. Son funciones del Consejo de Departamento:

a) Elegir al Director o Directora del Departamento conforme a lo establecido en su Reglamento.

b) Aprobar el Informe económico anual, la Memoria docente e investigadora del Departamento y su Plan de actividades.

c) Aprobar los criterios de programación y evaluación para la oferta docente anual.

d) Asignar el encargo docente de su personal y sus eventuales modificaciones.

e) Establecer los programas básicos de las asignaturas en el marco del plan de estudios correspondiente.

f) Proponer ofertas de estudios de máster, doctorado y demás enseñanzas conducentes o no a títulos propios universitarios.

g) Aprobar las propuestas de nombramiento de quienes hayan de evaluar las Tesis Doctorales, en los términos en que lo autorice la Ley, así como de quienes deban componer los demás tribunales.

h) Apoyar las actividades e iniciativas investigadoras de su personal docente e investigador.

i) Solicitar la dotación de nuevas plazas y proponer las modificaciones oportunas de las relaciones de puestos de trabajo de su personal.

j) Informar motivadamente sobre la actividad docente del profesorado a efectos de la asignación de méritos docentes y de renovación de contratos.

k) Bere eskumenen esparruan, kontratuak egiteko baimena ematea, zientziaren, teknika-
ren edo artearen arloko lanak egiteko.

l) Venia docendi eman behar bada, aurretiko
txostena egitea.

m) Indarreko legeriak, estatutuok eta hauek
garatzeko arauak bere gain uzten dituzten gai-
nerako guztiak, bai eta eskuordetzen zaizkionak
ere.

3. Batzorde Iraunkorrak beteko ditu, alde
batetik, bere arautegiaren arabera kontseiluak
eskuordetutako eginkizunak, eta, bestetik, kon-
tseiluak une jakinetan eskuordetzen dizkionak.
Edozelan ere, kontseiluak ezin izango dizkio
eskuordetu ez zuzendaria aukeratzeko eskume-
na, ez saileko arautegia onartzekoa.

4. Bileren aktak saileko arautegiak zehazten
duen moduan zabalduko dira eta saileko kide
guztien esku jarriko dira.

212. artikulua

1. Zuzendaria Saileko Kontseiluak aukera-
tuko du, saileko kide diren irakasle eta ikertzaile
iraunkor doktoreen artean, eta UPV/EHUko
errektoreak izendatuko du.

2. Saileko zuzendaririk ez balego, Saileko
Kontseiluaren bilerarako deia egingo da, oina-
rrizko arautegiak ezarrita daukanari jarraiki,
hark behar diren neurriak har ditzan sailak be-
har bezala jarduteko.

3. Zuzendariaren agintaldia lau urtekoa
izango da eta ikastegiko arautegiak mugatu ahal
izango du zuzendariak zenbat agintaldi egin
ditzakeen segidan.

4. Zuzendariak estatutuotako 180.2 artiku-
luan jasotako arrazoiengatik utziko dute kargua.
Haien aurkako zentsura mozioa onartuz gero
ere utziko dute kargua, Sailen Oinarrizko Arau-
tegiaren aurreikusita dagoen legez.

213. artikulua

Campus edo ikastegi desberdinetan dihardu-
ten sailetan sail atalak eratu ahal izango dira,

k) Autorizar la celebración de contratos para
la realización de trabajos científicos, técnicos o
artísticos, en el marco de su competencia.

l) Informar, en su caso, con carácter previo
sobre la concesión de *venia docendi*.

m) Cuantas otras le otorguen la legislación
vigente, los presentes Estatutos y sus normas de
desarrollo, así como cuantas otras le sean dele-
gadas.

3. La Comisión Permanente ejercerá, en su
caso, por delegación, aquellas funciones del
Consejo que establezca su Reglamento y las que
puntualmente le delegue éste. La delegación en
ningún caso comprenderá la elección del Direc-
tor o Directora ni la aprobación del Reglamento
del Departamento.

4. Las actas de cada sesión se difundirán y
estarán a disposición de cualquier persona del
Departamento en la forma que determine su
Reglamento.

Artículo 212

1. La o el Director es elegido por el Consejo
del Departamento, de entre el personal docente
e investigador permanente doctor miembro del
mismo, y nombrado por la Rectora o Rector.

2. En el supuesto de inexistencia de Directora
o Director de Departamento, se convocará al Con-
sejo de Departamento, conforme lo que disponga
el Reglamento Marco, para que adopte las medi-
das oportunas que aseguren su funcionamiento.

3. El mandato del Director o Directora será
de cuatro años. El Reglamento de Departamen-
to podrá limitar el número de mandatos conse-
cutivos.

4. Los y las Directoras cesan por las causas
recogidas en el artículo 180.2 de estos Estatu-
tos. También cesarán mediante la aprobación de
una moción de censura, según lo previsto en el
Reglamento Marco de Departamentos.

Artículo 213

En aquellos Departamentos que desarrollen
sus actividades en distintos Campus o Centros

Sailen Oinarrizko Arautegiaren arabera. Atalak koordinatzaile bat izango du.

214. artikulua

1. Hauek dira saileko zuzendariaren eginkizunak:

- a) Sailaren ordezkaria izatea.
- b) Saileko Kontseiluko burua izatea, baita, dagokionean, saileko Batzorde Iraunkorreko burua ere, saileko arautegiari jarraiki.
- c) Saileko kideen eskari eta proposamenak jaso eta bideratzea.
- d) Saileko administrazio eta zerbitzuetako langileen zuzendari funtzionala izatea.
- e) Sailaren urteko memoria, eginkizunen plana eta txosten ekonomikoa egitea.
- f) Saileko kide anitzeko organoek hartutako erabakiak betetzea.
- g) Irakaskuntza normaltasunez eta benetan eman dadin zaintzea.
- h) Zientzia, teknika, giza zientzia eta artearen arloko ikerlanak egiteko sailak egiten dituen kontratuak sinatzea.
- i) Saileko beste organo batzuei eman ez zaizkienak, unibertsitateko gobernu organoek eskuordetutakoak eta estatutuok nahiz indarreko legeriak esleitzen dizkietenak.

2. Era berean, lankidetzak hitzarmenak ere sinatuko ditu, Gobernu Kontseiluaren jarraibideei eutsiz.

215. artikulua

Errektoreak irakaslanetik salbuetsi ahal izango ditu zuzendariak, gehienez ere arduraldiaren erdiraino.

Docentes se podrán constituir Secciones Departamentales, de conformidad con lo previsto por el Reglamento Marco de Departamentos, que preverá la existencia de un Coordinador o Coordinadora de Sección.

Artículo 214

1. Corresponden al Director o Directora del Departamento las funciones siguientes:

- a) Representar al Departamento.
- b) Presidir el Consejo del Departamento y, en su caso, su Comisión Permanente, de acuerdo con el Reglamento del Departamento.
- c) Recibir y canalizar las peticiones y sugerencias de las personas integrantes del Departamento.
- d) Dirigir funcionalmente al personal de administración y servicios adscrito al mismo.
- e) Elaborar la Memoria anual, el Plan de actividades y el Informe económico del Departamento.
- f) Ejecutar los acuerdos adoptados por los órganos colegiados del Departamento.
- g) Supervisar la normal y efectiva impartición de la docencia.
- h) Suscribir los contratos del Departamento para la celebración de trabajos de investigación científica, técnica, humanística o artística.
- i) Cualesquiera otras que no estén atribuidas a otros órganos del Departamento o le deleguen los órganos de gobierno universitario o le sean asignadas por los presentes Estatutos o la legislación vigente.

2. Le corresponderá, asimismo, la suscripción de convenios de colaboración en los términos que establezcan las directrices del Consejo de Gobierno.

Artículo 215

Los y las Directoras podrán ser eximidas por el Rector o Rectora de sus obligaciones docentes hasta un máximo de la mitad de su dedicación.

216. artikulua

1. Saileko idazkaria errektoreak izendatuko du, zuzendariak proposatuta. Jardunean dagoen irakasle edo ikertzaile bat izango da.

2. Honako hauek izango dira kargua uzteko arrazoi: dimisioa, heriotza, ezintasun legala, kargurako gaitasuna kenduta izatea, UPV/EHUko kide izateari uztea edo errektoreak hala erabakitzea, zuzendariak proposatuta.

3. Idazkariak saileko gobernu, ordezkaritza eta administraziorako kide anitzeko organoen ekintza eta erabakien fede ematen du; akta liburuak egiteaz eta zaintzeaz arduratzen da eta ziurtagiriak egiten ditu, hala erabakienak nola saileko dokumentazio ofizialean jasota dauden ekintza edo gertakariak.

VII. kapitulua. Unibertsitateko ikerketa institutueta, doktorego eskoletako eta bestelako gune, egitura edo entitateetako gobernu, ordezkaritza, zuzendaritza eta kudeaketa organoak

217. artikulua

1. Unibertsitateko ikerketa institutueta zuzendariak institutuen ordezkariak dira eta institutuen zuzendaritza eta kudeaketa arruntaz arduratzen dira.

2. Unibertsitateko ikerketa institutu bakoitzeko arautegiak zehaztuko du zelan osatuko den Institutuko Kontseilua (betiere institutuarekin zerikusia duten kidego guztiak ordezkaturik egotea bermaturik), zein eskumen izango dituen Kontseiluak, zeintzuk izango diren zuzendaria hautatzeko arauak (doktoreen artean hautatuko da) eta zein eskumen izango dituen.

3. Ikerketa institutu misto edo atxikiak eta UPV/EHUk irakaskuntza, ikerketa, kultura edo unibertsitate hedakuntzarako sortutako bestelako unitate misto edo entitateek jardungo dute haien sorrera edo atxikipena xedatu zuen erabaki edo hitzarmenaren arabera.

Artículo 216

1. La o el Secretario del Departamento será nombrado por el Rector o Rectora, a propuesta del Director o Directora. El nombramiento se hará de entre el personal docente e investigador en activo.

2. Cesará por dimisión, fallecimiento, incapacidad legal, inhabilitación, por dejar de pertenecer a la UPV/EHU y por resolución de la Rectora o Rector, a propuesta de la Directora o Director.

3. El o la Secretaria es la fedataria de los actos y acuerdos de los órganos colegiados de gobierno, representación y administración del Departamento, cuida de la formación y custodia de los libros de actas y libra las certificaciones oportunas de los acuerdos y de cuantos actos o hechos consten en la documentación oficial del Departamento.

Capítulo VII. De los órganos de gobierno, representación, dirección y gestión de los Institutos Universitarios de Investigación, Escuelas de Doctorado y demás centros, estructuras o entidades

Artículo 217

1. Los Directores o Directoras de Institutos Universitarios de Investigación ostentan la representación de éstos y ejercen las funciones de dirección y gestión ordinaria de los mismos.

2. El Reglamento interno de cada Instituto Universitario de Investigación propio determinará la composición y competencias de su Consejo de Instituto, en el que se garantizará la representación de todos los sectores relacionados con el mismo y las normas para la elección, entre doctoras y doctores, del Director o Directora y sus competencias.

3. En los Institutos Universitarios de Investigación mixtos o adscritos, así como en el caso de las demás unidades mixtas o entidades creadas por la UPV/EHU para el desarrollo de funciones docentes, investigadoras o de proyección cultural y universitaria se estará a lo dispuesto en el correspondiente acuerdo de creación o convenio de adscripción.

218. artikulua

Doktorego eskolak Batzarra edo Kontseilua eta zuzendaria izango du, oinarritzko arautegiak zehazten duen bezala hautatuko edo izendatuko direnak.

219. artikulua

Gobernu Kontseiluak arautuko ditu UPV/EHUn sortzen diren nortasun juridikorik gabeko gainerako egitura edo entitateak.

220. artikulua

Gobernu Kontseiluak beren-beregi eman beharko du baimena unibertsitateko kideek parte hartzeko UPV/EHUK berak sortutako edo UPV/EHUn esku-hartzeaz sortutako erakunde edo enpresa publiko edo pribatueta administrazio kontseiluetan edo gobernu organoetan.

VIII. TITULUA. UPV/EHUn EKONOMIA ETA FINANTZA ARAUBIDEA

I. kapitulua. Xedapen orokorra

221. artikulua

1. UPV/EHUK autonomia dauka ekonomia eta finantzetan, eta bere eginkizunak betetzeko behar dituen ekonomia eta finantza baliabideak eta ondasunak izango ditu.

2. Fondoak eduki eta kudeatzen dituzten unitate guztiek honako printzipio hauek hartuko dituzte aintzat: legezotasuna, eraginkortasuna, gardentasuna, elkartasuna eta UPV/EHUri eta gizarteari ahalik eta zerbitzurik onena ematea.

II. kapitulua. UPV/EHUn ondarea

222. artikulua

1. UPV/EHUn ondarea unibertsitateak jabetzan edo titularitatean dituen ondasun eta eskubideek osatuko dute, bai eta etorkizunean

Artículo 218

La Escuela de Doctorado contará con una Junta o Consejo y una Directora o Director que se elegirán o designarán conforme al Reglamento Marco.

Artículo 219

El Consejo de Gobierno regulará las demás estructuras o entidades sin personalidad jurídica que pudieran crearse en la UPV/EHU.

Artículo 220

Corresponde, en todo caso, al Consejo de Gobierno autorizar expresamente la participación de personas integrantes de la Comunidad Universitaria en los Consejos de Administración u órganos de gobierno de entidades o empresas públicas o privadas creadas por la UPV/EHU o con su participación.

TÍTULO VIII DEL REGIMEN ECONÓMICO Y FINANCIERO DE LA UPV/EHU

Capítulo I. Disposición general

Artículo 221

1. La UPV/EHU tiene autonomía económica y financiera y dispondrá de los bienes y recursos económico-financieros suficientes para el desempeño de sus funciones.

2. Todas las unidades que dispongan y gestionen fondos se atenderán a los principios de legalidad, eficacia, transparencia, solidaridad y mejor servicio a la UPV/EHU y a la sociedad.

Capítulo II. Del patrimonio de la UPV/EHU

Artículo 222

1. El patrimonio de la UPV/EHU está constituido por el conjunto de bienes y derechos cuya propiedad o titularidad ostente y cuantos

eskuratzen edo esleitzen zaizkion gainerako guztiek ere, betiere arau orokorrean men eginez.

2. UPV/EHUk jasotzen dituen dohaintzak eta erosten duen material inbentariagarri eta bibliografikoa unibertsitatearen ondarean sartuko dira, nahiz eta horrek ez duen eragotziko gerora haien erabilera beste erakunde batzuei esleitu ahal izatea.

3. Unibertsitateko kide guztien eginbearra da UPV/EHUren ondarea zaintzea eta egokiro erabiltzea.

4. Jabetza publikoko eremu, eraikin eta lokalak atxikita dauden zerbitzu eta zereginetarako erabiliko dira lehentasunez, eta unibertsitateko arduradunek behar diren neurriak hartu ahal izango dituzte bateraezinak diren jarduerak bildu ez daitezzen.

5. UPV/EHUk bere ondarea eratzen duten ondasun eta eskubide guztien inbentarioa izango du, eta aldian-aldian eguneratuko.

223. artikulua

Jabetza publikoko ondasunen eta bere ondarearen administrazioan eta erabileran UPV/EHUk arlo horretako kasuan kasuko legeriari jarraituko dio.

III. kapitulua. Ekonomia eta finantza baliabideak

224. artikulua

UPV/EHUren ekonomia eta finantza baliabideak honako hauek izango dira: hartzen dituen diru laguntzak, Unibertsitate Planetik hartzen dituenak, jabetzan dituen eskubide eta akzioak, ematen dituen zerbitzuetatik datozkion sarrerak, bere jarduerak ematen dizkietenak eta bere ondarearen etekinak.

225. artikulua

Bere helburuak betetzeko, UPV/EHUk honako baliabide hauek izango ditu:

otros adquiriera o le sean atribuidos en el futuro, conforme a la normativa general.

2. Se incorporarán al patrimonio de la UPV/EHU las donaciones que reciba y el material inventariable y bibliográfico que se adquiriera, sin perjuicio de la posterior adscripción de su uso a otras entidades.

3. Incumbe a toda la Comunidad Universitaria la conservación y correcta utilización del patrimonio de la UPV/EHU.

4. Los espacios, edificios y dependencias de dominio público se destinarán prioritariamente a los usos relativos a los servicios y actividades a los que se encuentran adscritos, pudiendo los responsables universitarios adoptar aquellas medidas que eviten la realización de actividades incompatibles.

5. La UPV/EHU mantendrá un inventario actualizado de todos los bienes y derechos que componen su patrimonio.

Artículo 223

La administración y disposición de los bienes de la UPV/EHU de dominio público y de los patrimoniales se ajustará a la legislación que rija en cada caso en esta materia.

Capítulo III. De los recursos económico-financieros

Artículo 224

Los recursos económico-financieros de la UPV/EHU estarán integrados por todos los ingresos que se deriven de las subvenciones que reciba, del Plan Universitario, de los derechos y acciones de los que sea titular, de los procedentes de los servicios que preste, de las actividades que desarrolle y de los rendimientos de su Patrimonio.

Artículo 225

Para el cumplimiento de sus fines, la UPV/EHU contará con los siguientes recursos:

a) Euskal Autonomia Erkidegoak urtero egiten dizkion gastu arruntetarako eta kapital gastuetarako transferentziak. Horiek UPV/EHUK bere zeregin arruntak betetzeko adinakoak izan beharko dira.

b) Inbertsioen Urte Anitzerako Planeko eta indarreko programa kontraturako fondoak.

c) Unibertsitateko titulu ofizialetako ikaske-
te loturiko zerbitzu akademikoen eta legean jasotako gainerako eskubideen diru sarrerak, Euskal Autonomia Erkidegoak horretaz xedatzen duenaren arabera.

d) Berezko ikasketei, espezializazio ikastaroei eta UPV/EHUK modu autonomoan antolatzen dituen gainerako jardueri dagozkien zerbitzu akademiko eta administratiboen diru sarrerak.

e) Erakunde publiko eta pribatuek egindako transferentziak eta herentzia, legatu eta dohaintzetatik etorritako diru sarrerak.

f) Bere ondarearen etekinak, eta indarreko araei jarraiki unibertsitateak burutzen dituen bestelako jarduera ekonomikoetatik etorritako sarrerak.

g) Unibertsitateari buruzko Lege Organikoko 83. artikuluan aurreikusten diren kontratuetatik etorritako diru sarrerak, Gobernu Kontseiluak kontratu horietarako zehazten duen araubide ekonomikoaren arabera.

h) Euskal Autonomia Erkidegoaren baime-naz unibertsitateak egiten dituen mailegu eragiketen emaitzak.

i) Altxortegiko soberakinak.

j) Bestelako diru sarrerak.

IV. kapitulua. Ekonomia eta finantzen kudeaketa

226. artikulua

1. Gobernu Kontseiluak, gerentearen proposamenez, UPV/EHUREN ondarearen eta haren ekonomia eta finantza baliabideen kudeaketa

a) Las transferencias para gastos corrientes y de capital fijadas, anualmente, por la Comunidad Autónoma del País Vasco, que deberán cubrir las actividades ordinarias de la UPV/EHU.

b) Las dotaciones correspondientes al Plan Plurianual de inversiones y a los fondos destinados al contrato programa vigente en cada momento.

c) Los ingresos por la prestación de servicios académicos y demás derechos legalmente establecidos, correspondientes a enseñanzas conducentes a títulos universitarios de carácter oficial, de acuerdo con lo que al respecto establezca la Comunidad Autónoma del País Vasco.

d) Los ingresos por la prestación de servicios académicos y administrativos correspondientes a enseñanzas propias, cursos de especialización y demás actividades autónomamente establecidas por la UPV/EHU.

e) Los ingresos procedentes de transferencias de entidades públicas y privadas, así como de herencias, legados o donaciones.

f) Los rendimientos procedentes de su patrimonio y de aquellas otras actividades económicas que se desarrollen según lo previsto en la normativa vigente.

g) Todos los ingresos procedentes de los contratos previstos en el art. 83 de la Ley Orgánica de Universidades, de acuerdo con el régimen económico que para dichos contratos establezca el Consejo de Gobierno.

h) El producto de las operaciones de crédito que concierte, previa autorización de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

i) Los remanentes de Tesorería.

j) Cualquier otro ingreso.

Capítulo IV. De la gestión económico-financiera

Artículo 226

1. El Consejo de Gobierno, a propuesta de la o del Gerente, regulará la gestión del patrimonio y de los recursos económico-financieros

arautuko du. Gobernu Kontseiluak antolaketa-rako neurriak edo bestelakoak hartu ahal izango ditu, aurrekontua egoki gauza dadin bermatzeko.

2. Gerentearen eskumena da ondarea eta ekonomia eta finantza baliabideak kudeatzea, estatutu hauetan administrazio organoetarako ezarrita dagoena eragotzi barik.

3. Ondarearen eta ekonomia eta finantza baliabideen kudeaketarako arautegia Gobernu Kontseiluak onartuko du.

227. artikulua

Ekonomia eragiketa guztiak behar bezala kontabilizatuko dira UPV/EHUko kontabilitate erregistroetan, ekitaldiaren kitapena egiteko egin behar den urteko txosten ekonomikoan sartze aldera.

228. artikulua

1. UPV/EHUK bere helburuak betetzeko behar dituen egintza eta negozio juridiko guztiak sinatu ahal izango ditu, honi dagokion legerian ezarritako muga eta baldintzen barruan.

2. Bere kontratuak tramitatzean UPV/EHUK printzipio hauek beteko ditu: lizitazioetara aurkezteko askatasuna, prozeduren publikitatea eta gardentasuna, bereizkeriarik eza eta hautagai guztien tratu berdina.

229. artikulua

Kontratazio organoak, gerentearen proposamenez eta legezotasun txostena jaso ondoren, UPV/EHUren administrazio baldintza zehatzen orrien ereduak onartuko ditu, kontratazio administratiboan aplikatu beharreko legeriak arautzen dituen obra, hornigai eta zerbitzuen kontratuarako.

230. artikulua

1. UPV/EHUko kontratazio organoa erretorea da, ahalmen hori eskuordetu badezake ere.

de la UPV/EHU. El Consejo de Gobierno podrá adoptar medidas organizativas y de otro orden, con la finalidad de garantizar la correcta ejecución del presupuesto.

2. La gestión de los recursos económico-financieros y del patrimonio es competencia del o de la Gerenta, sin perjuicio de lo dispuesto en los presentes Estatutos para los diferentes órganos de administración.

3. La normativa reguladora de la gestión del patrimonio y de los recursos económico-financieros se aprobará por el Consejo de Gobierno.

Artículo 227

Todas las operaciones económicas serán debidamente contabilizadas en los registros contables de la UPV/EHU a efectos de su inclusión en el Informe económico anual correspondiente a la liquidación del ejercicio.

Artículo 228

1. La UPV/EHU podrá suscribir cualesquiera actos y negocios jurídicos necesarios para la realización de sus fines dentro de los límites y condiciones establecidos en la legislación que en esta materia le sea aplicable.

2. La UPV/EHU llevará a cabo la tramitación de sus contratos ajustándose a los principios de libertad de acceso a las licitaciones, publicidad y transparencia de los procedimientos y no discriminación e igualdad de trato entre las y los candidatos.

Artículo 229

El órgano de contratación, a propuesta de la o del Gerente y previo informe de legalidad, aprobará los modelos de pliegos de cláusulas administrativas particulares de la UPV/EHU para la contratación de obras, suministros y servicios de los regulados en la legislación aplicable a la contratación administrativa.

Artículo 230

1. El órgano de contratación de la UPV/EHU es la Rectora o Rector, sin perjuicio de las delegaciones que efectúe.

2. Kontratazio administratiboari buruzko arauak Kontratazio Mahaia eratzea eskatzen dutenean, errektoreak zehaztuko du zelan osatuko den mahaia, eginkizun hori eskuordetu badezake ere.

V. kapitulua. Urte anitzerako programazioa

231. artikulua

1. Inbertsio eta azpiegituren urte anitzerako programazioa Gobernu Kontseiluak egingo du eta gero Gizarte Kontseiluari bidaliko dio, onar dezan.

2. Unibertsitate Planean zehaztu ahal izango da unibertsitateak programa-kontratuaren bidez jasoko duen urte anitzerako finantzazioa.

232. artikulua

1. UPV/EHUK urteko aurrekontu bat izango du, bakarra, publikoa eta orekatua. Urte natural-eko sarrera eta gastuak bilduko ditu. Euskal Autonomia Erkidegoak hitzartutako diru laguntza arrunta globala izango da, eta irakaslan nahiz ikerketa lan arrunta ziurtatzeko adinakoa.

2. Sarrera eta gastuen kopuruak kalkulu arazoituetan oinarrituko dira. Diru sarrerak behin-behinekoak izango dira eta gastuak, berriz, gehieneko zenbateko batekin onartuak.

3. Ekitaldi bakoitzeko aurrekontuarekin batera aurrekontua gauzatzeko oinarri eta arau batzuk ere egongo dira, gastua modu deszentralizatuan kudeatzea bermatuko dutenak eta ekitaldi horretako ekonomia eta finantza jardunerako izango direnak.

4. Eranskin bat ere izango dute, non UPV/EHUren entitate instrumentalaren sarrera eta gastuen kalkulua jasoko den, erakunde horien gobernu organoek onartua.

233. artikulua

1. Sarreraren egoera orrian diru iturri guztien nondik norakoak zehaztuko dira, eta haien

2. En aquellos supuestos en los que por la normativa de contratación administrativa se exija la constitución de una Mesa de Contratación, el Rector o Rectora determinará su composición, sin perjuicio de las delegaciones que efectúe.

Capítulo V. De la programación plurianual

Artículo 231

1. La programación plurianual de inversiones e infraestructuras será elaborada por el Consejo de Gobierno y se remitirá al Consejo Social para su aprobación.

2. El Plan Universitario podrá determinar la financiación plurianual universitaria a través de contratos-programa.

Artículo 232

1. La UPV/EHU contará con un presupuesto anual, único, público y equilibrado, que contendrá los ingresos y gastos del año natural. La subvención ordinaria acordada por la Comunidad Autónoma del País Vasco, que tendrá carácter global, asegurará el normal funcionamiento de la actividad docente y de investigación de carácter ordinario.

2. Las cifras correspondientes a ingresos y gastos se establecerán con base en estimaciones razonadas. Los ingresos tendrán carácter provisional y los gastos carácter limitativo o de autorización general.

3. El Presupuesto del ejercicio irá acompañado de unas normas y bases de ejecución que garantizarán la gestión descentralizada del gasto y constituirán la normativa a que debe ajustarse la actuación económico-financiera en ese período.

4. En documento anexo constará la estimación de ingresos y gastos de las entidades instrumentales de la UPV/EHU, aprobada por el correspondiente órgano de gobierno de aquéllas.

Artículo 233

1. El estado de ingresos detallará la naturaleza de las distintas fuentes de financiación a

zenbateko osoari erantsi beharko zaio gerakin orokorra, hau da, aurreko ekitaldiaren kitapenetik sortutako soberakina, gerakin espezifiko behin kendu ondoren.

2. Honako hauek joko dira gerakin espezifikotzat (eta beraz, kreditua sortuko dute hurrengo ekitaldirako eta hasieran horien esleipendun izan ziren atal funtzionalen esku geratuko dira):

a) Ikerketa proiektu eta azpiegituretarako diren kreditu erabili gabeak.

b) Kanpoko baliabidez hornitutakoak diren eta helburu jakin batzuetarako diren kreditu erabili gabeak.

c) Hartuta dauden baina arrazoi sendoengatik bete ezin izan diren konpromisoen gastuei dagozkien kreditu erabili gabeak.

3. Kredituen gerakin espezifikoek espezifiko izateari utziko diete berez zegokien jarduera amaitu eta hurrengo ekitaldia bukatzean.

234. artikulua

1. Gastuen egoera orrian gastuaren kontzeptu guztiak eta zenbatekoak zehaztuko dira. Honako xehetasun hauek adierazita sailkatuko dira gastuak:

a) Gastu mota.

b) Programa edo helburua.

c) Gastu gunea.

d) Bestelakoak, unean-unean erabakiko direnak.

2. Betiere, gastu arrunta eta inbertsio gastua bereziko dira.

235. artikulua

1. Errektoreak aurrekontuaren proiektua aurkeztuko dio urtero Gobernu Kontseiluari, onar dezan.

cuyo importe total deberá sumarse el remanente genérico, originado por el excedente en la liquidación del ejercicio anterior, una vez aplicado el remanente específico.

2. Se considerarán remanentes específicos y por lo tanto generarán crédito en el ejercicio siguiente, quedando como saldos a disposición de las unidades funcionales a las que fueron inicialmente asignados, los siguientes:

a) Los créditos pendientes de ejecución correspondientes a proyectos e infraestructuras de investigación.

b) Los créditos pendientes de ejecución dotados con recursos externos finalistas.

c) Los créditos pendientes de ejecución correspondientes a gastos que amparen compromisos contraídos y que por causas justificadas no hayan podido realizarse.

3. Los remanentes de crédito específicos perderán su condición de específicos al término del ejercicio siguiente al de finalización de la actividad para la que fueron asignados.

Artículo 234

1. El estado de gastos detallará todos los conceptos del mismo y su cuantía, y se presentará clasificando los gastos en las siguientes modalidades:

a) Por naturaleza.

b) Por programa o destino.

c) Por centro de coste.

d) Por aquellas que se determinen en cada momento.

2. En todos los casos se distinguirá el gasto corriente y el de inversión.

Artículo 235

1. La Rectora o Rector someterá anualmente el anteproyecto de presupuesto a la aprobación del Consejo de Gobierno.

2. Gobernu Kontseiluak onartutako proiektua Gizarte Kontseiluari aurkeztuko zaio, behin betiko onar dezan.

236. artikulua

Aurrekontuan aldaketak egiteko indarreko arau orokorreari jarraikiko zaie, eta ekitaldi bakoitzean unibertsitateko aurrekontuari erantsiko zaion arautegiari.

237. artikulua

Ekitaldiko lehen eguna baino lehen UPV/EHUko aurrekontua onartuko ez balitz, aurreko ekitaldiko aurrekontua luzatuzat joko da berez, harik eta aurrekontu berria onartu arte, Gobernu Kontseiluak ontzat jotzen dituen aldaketekin.

238. artikulua

UPV/EHUK, Barne Kontroleko Zerbitzuaren bidez, bere gastu eta sarreraren barne kontrola bermatuko du legezkotasun, eraginkortasun eta eragimen printzipioen arabera. Zerbitzu hori errektorearen menpe egongo da zuzenean eta autonomia funtzionala izango du Gerentziarekiko.

239. artikulua

1. Urteko txosten ekonomikoa ekitaldi ekonomikoaren kontuak aurkeztu eta emateko dokumentua da.

2. Urteko txosten ekonomikoa Gerentziak egingo du, legean aurreikusitako edukiak jasoz.

3. Errektoreak Gobernu Kontseiluari eta Gizarte Kontseiluari aurkeztuko die txostena, onespena emateko hurrengo urteko lehen sei hilekoan, eta gero Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluari bidaltzeko.

240. artikulua

UPV/EHUK erakunde baten kapitalean edo ondare fondoan parterik handiena daukanean

2. El proyecto aprobado por el Consejo de Gobierno será elevado para su aprobación definitiva al Consejo Social.

Artículo 236

Las modificaciones del Presupuesto se ejecutarán de conformidad con la normativa vigente, según normativa presupuestaria anexa al Presupuesto de la Universidad para cada ejercicio.

Artículo 237

En el supuesto de no aprobarse el Presupuesto de la UPV/EHU antes del primer día del ejercicio económico correspondiente, se entenderá automáticamente prorrogado el del ejercicio anterior hasta la aprobación del nuevo presupuesto con las adaptaciones que, en su caso, acuerde el Consejo de Gobierno.

Artículo 238

La UPV/EHU asegurará el control interno de sus gastos e ingresos, de acuerdo con los principios de legalidad, eficacia y eficiencia, a través del Servicio de Control Interno, que actuará con dependencia directa del Rector o Rectora y autonomía funcional respecto de la Gerencia.

Artículo 239

1. El Informe económico anual es el documento a través del cual se presentan y se rinden las cuentas del ejercicio económico.

2. El Informe económico anual será elaborado por la Gerencia ajustándose al contenido legalmente previsto.

3. La Rectora o Rector presentará el Informe al Consejo de Gobierno y al Consejo Social para su aprobación dentro del primer semestre del año siguiente y posterior remisión al Consejo de Gobierno de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 240

Las cuentas anuales de las entidades en las que la UPV/EHU tenga participación mayorita-

edo erakunde horretako zuzendaritza organoetako kide gehienak UPV/EHUkoak direnean, erakunde horren urteko kontuak aurkeztuko zaizkie Gobernu Kontseiluari eta Gizarte Kontseiluari, UPV/EHUren epe eta prozedura bereberekin.

IX. TITULUA. ESTATUTUAK ALDATZEA

241. artikulua

Honakoek egin dezakete proposamena Estatutuak aldatzeko:

- a) Errektoreak,
- b) Gobernu Kontseiluak,
- c) Klaustrokideen heren batek.

242. artikulua

1. Errektoreak proposatzen duenean Estatutuak aldatzea, aukera hauek izango ditu:

a) Klaustroko Mahaira zuzenean bidaltzea proposatzen duen testu berria eta aldaketarako arrazoien azalpena, horrek tramita dezan.

b) Klaustroko Estatutuen Batzordera jo eta adieraztea zein puntu proposatzen duen aldatzea, batzordeak testua idatz dezan. Errektoreak ontzat jotzen badu testu berria, Klaustroko Mahaiari bidaliko dio, tramita dezan.

2. Estatutuak aldatzeko proposamena Gobernu Kontseiluak egiten duenean, testu berria proposatu beharko du eta aldaketarako arrazoiak eman. Testua gehiengo osoz onartua izan beharko da Gobernu Kontseiluan. Gero errektoreak Klaustroko Mahaira bidaliko du testua, horrek tramita dezan.

3. Estatutuak aldatzeko proposamena klaustrokideen heren batek egiten duenean, testu berria proposatu beharko dute eta aldaketarako arrazoiak eman. Gero errektoreak Klaustroko Mahaiari bidaliko dio testua, tramita dezan.

ria en el capital, fondo patrimonial equivalente o en sus órganos de dirección se presentarán al Consejo de Gobierno y al Consejo Social para su aprobación en los mismos plazos y procedimientos previstos para la UPV/EHU.

TÍTULO IX. DE LA REFORMA DE LOS ESTATUTOS

Artículo 241

La iniciativa del proceso de reforma de los Estatutos corresponde:

- a) al Rector o Rectora,
- b) al Consejo de Gobierno,
- c) a un tercio del Claustro.

Artículo 242

1. Cuando la iniciativa de reforma la lleve a cabo la Rectora o el Rector, éste podrá:

a) Remitir directamente a la Mesa del Claustro el texto de reforma propuesto, con su motivación, para que siga su tramitación.

b) Dirigirse a la Comisión Estatutaria del Claustro, indicándole los ámbitos a reformar, para que elabore un texto. Si el Rector o Rectora lo hace suyo, lo enviará a la Mesa del Claustro para que siga su tramitación.

2. Cuando la iniciativa de reforma la lleve a cabo el Consejo de Gobierno, deberá proponer un texto con su motivación, adoptado por mayoría absoluta, que el Rector o Rectora trasladará a la Mesa del Claustro para que siga su tramitación.

3. Cuando la iniciativa de reforma la lleve a cabo un tercio de las personas integrantes del Claustro, deberá proponer un texto con su motivación, que la Rectora o Rector tendrá que trasladar a la Mesa del Claustro para que siga su tramitación.

243. artikulua

1. Errektoreak Klaustroko Mahaiari bidaliko dio aldaketarako proposamena, eta Unibertsitateko Klaustroa biltzeko deia egingo du, ekimena aurkezten denetik hilabete biko epean gehienez, proposamenaz erabaki dezan.

2. Klaustroaren arautegiak Estatutuak aldatzeko prozedura eta zuzenketak aurkezteko baldintzak arautuko ditu.

244. artikulua

Estatutuak aldatzeko proiektuak aurrera egiteko beharrezkoa izango da bileran dauden klaustrokideen gehiengo osoak alde bozkatzea.

245. artikulua

1. Klaustroko Estatutuen Batzordeko burua errektorea izango da, edo horretarako eskuordetza daukan pertsona, eta idazkari nagusia batzordeko kideetako bat izango da. Gainera honako hauek egongo dira batzordean: irakasle eta ikertzaile iraunkor doktoreen lau ordezkari, irakasle eta ikertzaile iraunkor ez-doktoreen ordezkari bat, gainerako irakasle eta ikertzaileen ordezkari bat, ikasleen bi ordezkari eta administrazio eta zerbitzuetako langileen bi ordezkari. Batzordearen osakideak talde horietakoek hautatuko dituzte beren kideen artean Klaustroan. Hauteskunde prozesuan behar diren neurriak hartuko dira emakumezkoen eta gizonezkoen kopuruak orekatuak izan daitezen.

2. Hauek izango dira batzordearen eskumena: Estatutuak aldatzeko proiektuak egitea edo irizpena ematea halako proiektuez; Klaustroaren arautegia egitea; eta bere gain uzten diren gainerako eskumen guztiak.

246. artikulua

1. Onartutako aldaketak eta estatutu berrien testua Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuari aurkeztu beharko zaizkio, legezkoak diren azter dezan eta gero Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dituzan.

Artículo 243

1. Presentado un texto de reforma a la Mesa del Claustro, el Rector o Rectora convocará al Claustro Universitario para decidir sobre dicha reforma en un plazo máximo de dos meses a contar desde la presentación de la iniciativa.

2. El Reglamento del Claustro regulará el procedimiento de reforma y los requisitos para la presentación de enmiendas.

Artículo 244

El proyecto de reforma prosperará de obtener el voto afirmativo de la mayoría absoluta de las y los miembros presentes del Claustro.

Artículo 245

1. La Comisión Estatutaria del Claustro estará presidida por la Rectora o Rector o persona en quien delegue y formará parte de la misma la o el Secretario General. Además, estará integrada, por cuatro representantes del personal docente e investigador permanente doctor, uno del personal docente e investigador permanente no doctor, uno del otro personal docente e investigador, dos representantes de alumnado y dos representantes del personal de administración y servicios, realizándose esta elección en el Claustro por y entre las y los propios miembros de cada uno de los sectores citados. El proceso de elección articulará los medios para posibilitar una presencia equilibrada de mujeres y hombres.

2. Serán competencias de esta Comisión la elaboración o el dictamen de los proyectos de reforma de los Estatutos, la elaboración del Reglamento del Claustro y aquellas otras que le sean encomendadas.

Artículo 246

1. Las modificaciones aprobadas y el texto de los nuevos Estatutos resultantes serán elevados al Gobierno de la Comunidad Autónoma del País Vasco, para su control de legalidad y posterior publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

2. Aldaketak onartutzat joko dira, baldin eta indarreko legeriak horretarako ezartzen duenean Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuak horien kontra berariazko erabakirik ematen ez badu.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena

1. Irakasle eta ikertzaile funtzionario edo kontratatu iraunkor moduan osasun erakundeetako asistentzia zerbitzuei lotutako lanpostuak eskuratzeko prozesua arautuko da horretarako arautegi espezifikoarean arabera eta osasun erakundeekiko itunari jarraiki.

2. Aldi baterako irakasle eta ikertzaile moduan lanpostuok eskuratzeko prozesua horretarako arautegi espezifikoarean arabera eta osasun erakundeekiko itunari jarraiki arautuko da.

Bigarrena

Lektoreek autonomia erkidegoan ofizialak ez diren hizkuntzak edo haien literaturak irakasten dituzte unibertsitatean, UPV/EHUK eta estatutu espainiarrak edo UPV/EHUK eta Espainiako edo atzerriko beste erakunde batzuek sinatutako hitzarmenen ondorioz. Kontratu baldintzak, arduraldia, kontratuaren iraupena eta luzapena hitzarmen horien arabera arautuko dira. Hitzarmen edukia Gobernu Kontseiluak onartutako oinarriko hitzarmenaren arabera izango da.

Hirugarrena

Unibertsitateko irakasleen kidegoetan sartzeko estatutuko akreditazioa edo irakasle eta ikertzaile kontratatuen kategorietara sartzeko ebaluazioa arautzen duten irizpideak aplikatze aldera, Gobernu Kontseiluak baliokidetzat taula bat egingo du, estatutu hauetako 11.2 artikuluan aipatutako kide bakarreko organoak eta pareko karguak agertuko dituena.

2. Las modificaciones se entenderán aprobadas si el Gobierno de la Comunidad Autónoma del País Vasco no adopta resolución expresa en contrario dentro del plazo previsto en la legislación vigente.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera

1. El acceso como personal docente e investigador funcionario o contratado permanente a las plazas vinculadas a Servicios asistenciales de Instituciones Sanitarias se regirá por lo establecido en la normativa específica de aplicación y en el Concierto Sanitario.

2. El acceso como personal docente e investigador de carácter temporal se regirá por lo establecido en la normativa específica de aplicación y en el Concierto Sanitario.

Segunda

Los y las Lectoras son profesoras de literatura o de lengua no oficial de la Comunidad Autónoma que imparten docencia universitaria como resultado de convenios entre la UPV/EHU y el Estado Español u otras instituciones españolas o extranjeras. Las condiciones contractuales, el régimen de dedicación, la duración y la renovación de la situación docente se regirán por los citados convenios, cuyo contenido se ajustará al convenio básico aprobado por el Consejo de Gobierno.

Tercera

A los efectos de la aplicación de los criterios previstos en las normas reguladoras de la acreditación nacional para el acceso a los cuerpos docentes universitarios o de la evaluación o informe para el acceso a categorías de profesorado e investigador contratado, el Consejo de Gobierno elaborará una tabla de equivalencias de cargos asimilados a los órganos unipersonales mencionados en el artículo 11.2 de estos Estatutos.

Laugarrena

Hala erabakitzen duenean, Gobernu Kontseiluak nolabaiteko aitortpena egin ahal izango die bere kideei, egindako lana saritzeko, gobernu, zuzendaritza edo kudeaketa organoetan edo Estatutuetatik sortutako batzordeetan parte hartzeagatik.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena

1. Estatutuak garatzeko arauak berrikusi eta indarrean jarri artean, orain indarrean dauden arautegiak aplikatu beharko dira, legeria orokorrari eta estatutu hauei kontra egiten ez dieten guztian.

2. Edozelan ere, arauen kontraesantetik sor litezkeen lege hutsuneak betetzeko, Gobernu Kontseiluak behar diren behin-behineko arau osagarriak emango ditu.

3. Estatutu hauek indarrean jarri eta gehienez sei hilabeteko epean Gobernu Kontseiluak egutegi bat egingo du Estatutuak garatzeko arautegia berrikusteko.

Bigarrena

1. Unibertsitateko Klaustroak, Gobernu Kontseiluak eta campus, ikastegi, sail eta ikerketa institutuen gobernurako kide anitzeko organoek orain arte bezala osatuta jarraituko dute harik eta kideak aldatzeko sasoia heltzen zaien arte. Orduan estatutu hauetan zehaztutako moduan eratuko dira, estatutuok indarrean sartu eta bi urteko epean gehienez ere.

2. Era berean, estatutu hauetan aurreikusitako batzordeek orain arte bezala osatuta jarraituko dute, harik eta kideak aldatzeko sasoia heltzen zaien arte. Orduan estatutu hauetan zehaztutako moduan eratuko dira.

3. Aldatzeko sasoia heltzen bazaie haien arautegia onartu baino lehen, hauteskundeak estatutu hauen bidez arautuko dira, eta, dago-

Cuarta

El Consejo de Gobierno podrá regular para los casos en que así se decida, en atención a la actividad desempeñada, el reconocimiento u otros efectos por la participación de sus componentes en los órganos de gobierno, dirección o gestión y en las Comisiones estatutarias.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera

1. Hasta la revisión y entrada en vigor de la normativa de desarrollo estatutario, serán de aplicación los Reglamentos actualmente vigentes en lo que no contradigan a la legislación general y los presentes Estatutos.

2. En cualquier caso, el Consejo de Gobierno dictará, provisionalmente, la normativa complementaria para cubrir los vacíos legales que puedan derivar de la posible contradicción normativa.

3. Tras la entrada en vigor de los presentes Estatutos, el Consejo de Gobierno elaborará en un plazo máximo de seis meses un calendario de revisión de la normativa de desarrollo.

Segunda

1. El Claustro Universitario, el Consejo de Gobierno y los órganos colegiados de Gobierno de los Campus, de los Centros y de los Departamentos e Institutos Universitarios de Investigación mantendrán su composición actual hasta tanto proceda la renovación y se constituyan conforme a la nueva regulación prevista en los presentes Estatutos, lo que deberá tener lugar en el plazo máximo de dos años desde la entrada en vigor de los mismos.

2. De igual manera, se mantendrá la composición de las Comisiones previstas en estos Estatutos hasta tanto proceda la renovación y se constituyan conforme a la nueva regulación prevista en los presentes Estatutos.

3. De producirse la renovación antes de la aprobación del correspondiente Reglamento, las elecciones se registrarán por los presentes Estatutos

kionean, Hauteskunde Arautegi Orokorraren bitartez, edo/eta Gobernu Kontseiluak onartutako arautegiaren arabera.

Hirugarrena

25.3 artikuluan aipatutako irizpideak onartu artean eta salbuespenez, errektoreak berak esleitu ahalko ditu irakaslanak beharrezkoa baldin bada zerbitzua bermatzeko.

Laugarrena

Gobernu Kontseiluak batzorde berezi bat izendatu artean 34.6 artikuluan aurreikusitako erreklamazioetarako, estatutu hauetako 31.3 artikuluan aipatutako Erreklamazio Batzordeak ebatziko ditu erreklamazio horiek.

Bosgarrena

1. Estatutu hauek indarrean sartzean 133.3 artikuluan aurreikusitako gutxieneko kide kopurua ez daukaten sailek lanean jarraitu ahal izango dute, baina kopuruari buruzko eskakizunak bete beharko dituzte, Sailen Oinarrizko Arautegian zehazten diren epe eta baldintzetan.

2. 133.3 artikuluan adierazitako eskakizunei dagokienerako, Gobernu Kontseiluak irizpide bereziak jarri ahal izango ditu zeregin asistentzialak unibertsitatearekin ituna daukan ospitale batean betetzen duten irakasle eta ikertzaileentzat.

Seigarrena

Estatutuok indarrean sartzean unibertsitateko ikerketa institutuei atxikitako irakasle eta ikertzaile ez-doktoreek hala izaten eta bertan betetzen dituzten zereginak betetzen jarraitu ahal izango dute.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabe geratzen dira UPV/EHUko aurreko Estatutuak, abenduaren 23ko 322/2003 De-

y, en su caso, por el Reglamento de régimen electoral general y/o por la normativa aprobada por el Consejo de Gobierno.

Tercera

Hasta que los criterios a que se refiere el artículo 25.3 no se hayan aprobado, el Rector o Rectora podrá realizar dicha asignación de tareas docentes, con carácter excepcional, cuando así lo requiera la garantía del servicio.

Cuarta

Hasta tanto se establezca por el Consejo de Gobierno una comisión específica para los supuestos de las reclamaciones previstas en el artículo 34.6, dichas reclamaciones serán resueltas por la Comisión de Reclamaciones prevista en el artículo 31.3 de estos Estatutos.

Quinta

1. Los Departamentos que, a la entrada en vigor de estos Estatutos, no cumplan con el mínimo de personas previsto en el artículo 133.3 podrán continuar su funcionamiento, pero deberán adaptarse a lo requerido en los términos y plazos que establezca el Reglamento Marco de Departamentos.

2. A los efectos de los requisitos previstos en el artículo 133.3, el Consejo de Gobierno podrá establecer criterios específicos respecto del personal docente e investigador que realice funciones asistenciales exclusivamente en un Centro Hospitalario concertado con la Universidad.

Sexta

El personal docente e investigador no doctor que, a la entrada en vigor de estos Estatutos, esté adscrito a un Instituto Universitario de Investigación propio podrá continuar en dicha condición y seguir desempeñando tal labor.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogados los anteriores Estatutos de la UPV/EHU, aprobados por Decreto

kretuaren bidez onartuak; era berean, indargabe geratzen dira estatutu hauetan zehaztutakoaren kontra dauden xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Estatutuok Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

322/2003, de 23 de diciembre, y cuantas disposiciones se opongán a lo establecido en estos Estatutos.

DISPOSICIÓN FINAL

Los presentes Estatutos entrarán en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

UPV/EHUko ESTATUTUEN AURKIBIDE ANALITIKOA

Sarrera: ikus lehiaketak

Aldezlea: 11.3 artikulua, eta 74. artikulutik 77. artikulura

Izaera: 74.1

kargu uztea: 77.3

Iraupena: 74.3

Helburuak: 74.1, 2. atala eta 75

Aukeraketa: 74.2 eta 73

Hautagai izateko betebeharrak: 74.2

Gobernu Kontseiluaren proposamena: 74.3

Klaustroaren aukeraketa: 74.3

Estatusa: 74.2 in fine

Funtzioak: 76

Immunitate bermea: 77.2

Urteko memoria: 77.1

Jarduera prozedura: 75

Giza baliabideak eta baliabide materialak: 76.2

Ikasleak (ikus Unibertsitateko kideak)

Laguntzak: 16.2

Ikasleen elkarteak: 16.1; 18.3

Onurak organo eta batzarretan parte hartzeagatik:
4. X.G.

Lan poltsak: 16.1

Ikasle kontzeptua: 15

Ikasleen Kontseilua: 11.4; 20tik 22ra.

Enpresak sortzea: 16.1

Eskubideak: 17.1; 18.1

Betebeharrak: 19

Ikasleen Ordezkarien Estatutua: 18.2

Ebaluaketa: 18.1

Gizarteratzea eta lan munduratzea: 16.1

Iraute arauak: 18.4

Ebaluaketa arauak: 18.1

Ordezkaritza organoak: 70.2

Praktikak: hitzarmenak 16.1

Ikasleen parte hartzea: 16.1; 18.3

Arautegia: 18.1

Diziplina arautegia: 70.2

Elkarteak: ikus Unibertsitatearen gizarte hedakuntza eta erantzukizuna

Unibertsitateko Biblioteka: 103

Kalitatea eta unibertsitateko jardueraren ebaluazioa: 105etik 109ra.

Irakats lanaren ebaluaketa: 107

AZPren kudeaketaren ebaluaketa: 109

Ikerlanaren ebaluaketa: 108

Ebaluazio prozedurak: 106

Unibertsitateko Campusak: ikus UPV/EHUko egitura, baita Campuseko Batzarra, Campuseko errektoreordea eta Campuseko idazkaria

Campus Birtuala: 104

